

XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

1902

220/2012 DEKRETUA, urriaren 16koa, Arno (ES2120001) Kontserbazio Bereziko Eremua izendatu eta hura babesteko neurriak ezartzeko dena.

Gobernu Kontseiluaren 1997ko abenduaren 23ko, 2000ko azaroaren 28ko eta 2003ko ekainaren 10eko Akordioen bidez, 6 gune deklaratu ziren Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu izateko (HBBE), eta 52 leku proposatu ziren Europar Batasunaren Garrantzizko Lekuak (BGL) izateko. Proposamen hori Europako Batzordeari aurkeztu zitzaion, eta hark Europar Batasunaren Garrantzizko Lekuen (BGL) zerrenda onartu zuen 2004/813/EE eta 2006/613/EE Erabakien bidez. Lehenengoa eskualde biogeografiko atlantikoari dagokio, eta bigarrena, berriz, eskualde biogeografiko mediterraneoari; eta bi horien barne dago gure erkidegoa.

Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauan, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora babesteari buruzkoan, 4. artikuluan, eta abenduaren 13ko 42/2007 Legean, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoan, 44. eta 45. artikuluetan ezarritakoa betez, autonomia-erkidegoek, jendaurrean jarri aurretik, beren lurraldean BGL guztiak Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) deklaratu dituzte, bai eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE) guztiak ere. Horrez gain, behar adina kontserbazio-neurri ezarriko dituzte, eremu horietako habitat natural mota eta espezie mota guztien premia ekologikoei erantzuteko. Kontserbazio-neurriek kudeaketa-planak edo kudeaketa-bitartekoak hartuko dituzte, bai eta arauzko, administrazioko edo kontratuko neurriak ere. Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) izendatzeko epea 6 urtekoa da, Europako Batzordeak lekuen zerrenda onartzen duenetik kontatzen hasita.

Era berean, Habitat Zuzentaruak eskatutako lehentasunak hiru maila ezberdinetan finkatu dira: lehendabizi beste babespen figura baten pean ez dauden Kontserbazio Bereziko Eremuen izendapenari eta presio eta mehatxu handiak jasaten dituztenei lehentasuna eman zaie; bigarren mailan, eremu bakoitzaren barruan babesteko dauden objektu barruan, funtsezkoak direnak aukeratu dira; eta hirugarren mailan, zaintze neurri aktiboak lehenetsi dira, garrantzi gehiena emanez premia gehiena dutenei edo bere gauzatzea kontserbatu behar diren objektu eta eremuaren hobekuntza nabarmenagoa denean.

EAEko Natura 2000 Sareko Arno (ES2120001) izeneko espazioan Europar Batasunaren intereseko habitatak eta espezieak daude, hain zuzen, habitatei buruzko 92/43/EEE Zuzentaruaren I. eta II. eranskinetan jasotakoak, bai eta basoko hegaztien kontserbazioari buruzko 2009/147/EE Zuzentaruaren I. eranskinean jasotako hegazti-espezieak ere. Horregatik izendatu zen Natura 2000 leku.

Arno karedun mendigune malkartsu bat da, eta ia guztia artadi kantauriarren eta haren etapa azpiseriaren tapiz ilunak estalita dago. Artadi hori da KBEa Natura 2000 Sareko gune izendatzeko arrazoi nagusia. Jatorria karstean duen Olatzeko ibar txikiak berezitasun eta paisaia-kalitate nabariak dauzka, eta bertan lurzoru sakonagoak metatzen dira. Hor erkidegoaren intereseko zelai eta larre erdi-naturalak daude, abeltzaintza estentsiboan erabili direnak. Oinarrizko harkaitzei loturiko landare-komunitate ugari ere badago, eta bertan interes handiko espezie franko egoten dira.

92/43/EEE Zuzentaruak Kontserbazio Bereziko Eremua izendatzeko ezarritako eskakizunak betetze aldera, sakon aztertu da gune hori, eta eskala egokian adierazi da Europar Batasunaren

intereseko habitaten eta eskualdearen intereseko beste habitat batzuen kokalekua. Horrez gain, Arnoko fauna- eta flora-espezie bereizgarrien kokapena eta kontserbazio-egoera ere aztertu da.

Aztertuta espazioaren egungo egoera, haren ezaugarri fisikoak eta ekologikoak eta kontserbazioan eragiten duten giza erabilerak, horren ondoren, lekua kudeatzeko giltzarriak diren elementuak hautatzen dira, eta horiek izango dira, gero, helburuen eta neurrien proposamenen oinarri nagusia. Kudeaketa-xede diren elementu giltzarri esaten zaie, eta horien kontserbazio-egoera deskribatzeaz gain, zenbait helburu eta neurri zehazten dira, batetik, bermatzeko egoera onean kontserbatuko direla, eta, bestetik, lekuaren osotasun ekologikoa kontserbatuko dela, hori baita Habitatak Zuzentarauak ezarritako helburu nagusia.

Elementu giltzarri horietarako zehaztutako neurriak beste habitat natural eta flora- eta fauna-espezie batzuen kontserbazio ona lortzeko erabiliko dira; hain zuzen ere, aurreko elementuekin batera Arno ere Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko arrazoi izan dira, kontserbatu beharrekoak dira eta horrexegatik babes bereziko habitat eta espezieetat jo dira.

Xehetasun-lanek aukera eman dute habitat moten informazio zientifikoa hobetzeko; baina horietan adierazitako azalera-datuetan, zenbaitetan, alde handiak daude Euskal Autonomia Erkidegoak, proposatutako tokien zerrendarekin batera, Europako Batzordera bidalitako eta hari jakinarazitako datuen aldean. Hasierako proposamena egiterakoan lanerako erabili zen eskalaz eragin ditu desberdintasun horiek. Xehetasun-azterketan, gainera, ikusi da bazirela Europar Batasunaren intereseko espezieak hasierako proposamenean aipatu ez zirenak.

Mugaketa eguneratua Europako Batzordeari bidaliko zaio, hark onar dezan. Laneko eskala hobetzeak eragin du eguneratze hori, eta ez dakar muga-aldaketa garrantzitsurik, ez du funtsean aldatzen habitat naturalen azaleraren irudikapena, ez eta Europar Batasunaren intereseko flora- eta fauna-espezieen populazioena ere.

Arno kontserbazio Bereziko Eremua izendapenerako prozeduran, ondo bete da parte-hartzearen prozesua, nahitaezkoa izanik, eta uztailaren 18ko 27/2006 Legearen printzipioei jarraiki (lege horrek ingurumenaren alorrean informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen ditu). Prozesu horretan, gizarte- eta ekonomia-interesen ordezkari diren hainbat eragilek hartu dute parte. Izapide-epeak iraun bitartean zabalik egon dira parte hartzeko jarritako bide guztiak. Horretarako, interesa zuten herritarrei komunikazioak helarazi zaizkie eta, bestalde, propio prestatu genuen web-orri hau: <http://www.euskadi.net/natura2000>.

Arnoren kontserbazio-neurriak egiteko, Europako Batzordearen printzipioei jarraitu zaie, 92/43/EEE Zuzentaruaren adierazten diren habitaten eta taxonen premia ekologikoei erantzuna ematea baita helburua. Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen 45. artikuluan ezarritakoa betez, KBE bakoitzarentzat berariazko kudeaketa-tresna bat sortzea erabaki da. Dekretu honen eranskinean arau-izaerako kontserbazio-neurriak bildu ditugu, eta kudeaketa-tresnaren gainerako dokumentazioa Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrean ingurumenaren alorrean eskumena duen sailaren helbide elektronikoan dago eskuragarri.

Natura Ondarea eta Biodibertsitatearen abenduaren 13ko 42/2007 Legeko 2.f artikulua araberaren, ingurumenaren babesa lurralde-antolamenduari eta hirigintzari gailentzea, araudi honen oinarrian dagoen printzipioetako bat da.

Eusko Jaurlaritzari dagokio kontserbazio-neurriak ematea eta finkatzea, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 44. artikuluan ezarritakoari jarraiki eta baita Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 17. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Horrenbestez, Euskal Herriko Natura Babesteko 16/1994 Legearen 16.bis artikuluan eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 44. eta 45.1 artikuluetan ezarritakoa betez, jendaurreko izapidea bete ondoren, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak proposatuta, eta 2012ko urriaren 16an izandako bilkuran Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Helburua eta lurralde-eremua.

1.– Arno (ES2120001) Kontserbazio Bereziko Eremua izendatzea, Gipuzkoako lurralde historikoan.

2.– Kontserbazio Bereziko Eremu horren mugaketa dekretu honen eranskinean dago jasota. Eranskin horretan, deklaritzen den Kontserbazio Bereziko Eremu horren bi mugaketa adierazten dira: batetik, Europako Batzordearen 2004/813/EE Erabakiari (eskualde biogeografiko atlantikoan Europar Batasunaren Garrantzizko Lekuen zerrenda onartzekoari) dagokion mugaketa, eta, bestetik, eguneratua, laneko eskala hobetzeak eragindakoa eta Europako Batzordeari bidaltzen zaiona.

3.– Arno Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) kontserbazio-neurriak onartzea.

2. artikulua.– Xedea.

1.– Arau honen xedea hau da: Kontserbazio Bereziko Eremuan (KBE) bermatzea Europar Batasunaren intereseko habitat naturalak eta basoko fauna- eta flora-espezieen habitatak lehenera ekarriko direla edo, ondo kontserbatuta, horiei eutsiko zaiela. Horiek Kontseiluak 1992ko maiatzaren 21ean emandako 92/43/EEE Zuzentarauan ezarrita daude, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora babesteari buruzkoa da. Horrez gain, arauaren helburua da hegazti-espezieen biziraupena eta ugalketa ziurtatzea dagokion kokaleku-eremuan, eta, bereziki, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak basoko hegaztien kontserbaziori buruz 2009ko azaroaren 30ean emandako 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean adierazitako espezieena, bai eta eranskin horretan adierazi ez diren baina gurera iritsi ohi diren espezie migratzaileena ere. Horren guztiaren azken helburua da ahalegina egitea Europako lurraldean biodibertsitatea kontserbatuko dela bermatzeko.

2.– Kontserbazio Bereziko Eremuan araubide orokor hau aplikatuko da: 92/43/EEE Zuzentarauan eta 2009/147/EE Zuzentarauan ezarritakoa, eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean ezarritakoa.

3. artikulua.– Kontserbazio-neurriak.

1.– Dekretu honen helburu den eta Natura 2000 Sarea osatzen du Arno eremua kontserbatzeko neurriak dokumentu hauetan zehazten dira:

a) Kontserbaziorako helburuen eta neurrien agiria.

b) Kartografia.

b.1.– Mugaketa.

b.2.– Habitat naturalak.

b.3.– Zonakatzea.

c) Gehigarria. Kontserbatu nahi diren habitat eta espezie moten kontserbazio-egoeraren jarraipenari buruzko fitxak.

2.– Arau-izaerako xedapenak dira honako hauek:

2.1.– Helburu eta neurriei buruzko dokumentutik 6., 7., 9., 11. eta 13. tituluak eta 8. eta 10. tituluak eta neurriei buruzko koadroak.

2.2.– b.1 paragrafoko eremuaren mugaketaren kartografia.

2.3.– b.3 paragrafoko kudeaketarako zonakatzearen kartografia.

Dekretu honen eranskinean argitaratuta daude. Gainerako paragrafoak informatzekoak eta orientagarriak dira.

3.– Kontserbazio-neurriak berrikusteko edo aldatzeko, ingurumenaren alorrean eskumena duen sailburuak emango du horretarako agindua, egoerak berak edo eskura dauden ezagutza tekniko eta zientifikoek hala egitea eskatzen badute, eta, betiere, 92/43/EEE Zuzentarauaren 11. eta 17. artikuluetan ezarritakoa betez. Izan ere, kontserbazioa eta kudeaketa moldaerraza, etengabea eta malgua izan daitezten lan egitea da helburua. Prozedura horretan, bermatu egin behar da herritarren parte hartzea benetakoa eta eraginkorra izango dela, 26/2007 Legeak ezarri bezala; eragindako administrazioei eta erakundeei kontsulta egingo zaie eta Naturzaintza organoaren txostena jasoko da.

4.– Ingurumenaren alorreko sailaren egoitza elektronikoan egongo dira eskuragarri kartografia –formatu digitalean, eta eremu horien mugaketa adierazita– eta kontserbazio-neurriei buruzko agiri guztiak.

XEDAPEN IRAGANKORRA.- Kontserbazio bereziko eremuaren eguneratzea.

1.– Kontserbazio Bereziko Eremuaren mugaketaren eguneratzea, Europako Batzordeak hartutako Erabakiaren iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

2.– Dekretu hau indarrean jartzen den unetik eta KBEaren mugaketa benetan eguneratzen den arte, lehen paragrafoan adierazitakoa betez, mugaketan eguneratu nahi diren eremuetan prebentziozko erregimena aplikatuko da, hain zuzen, 92/43/EEE Zuzentarauaren 6.2 eta 6.3 artikuluan ezarritakoa eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45.2 eta 45.4 artikuluetan ezarritakoa.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ahalmena.

Ingurumenaren alorreko sailburuari ahalmena ematen zaio Eusko Jaurlaritzaren izenean betetzeko legeak ezarritako tramite eta komunikazio guztiak, bai Estatuaren Administrazio Orokorrean, bai Europar Batasunean. Eta, hala badagokio, neurriak ezartzeak eragingo duen kostu ekonomikoa zenbatekoa den kalkulatu du, 92/43/EEE Zuzentarauaren 8. artikulua ezarritakoa betetze aldera.

Bigarrena.– Ministeriora helaraztea.

Gobernu Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministeriora bidaliko du dekretu honen onespena, hark Europako Batzordea bidal dezan.

2013ko apirilaren 22a, astelehena

Hirugarrena.– Indarrean sartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko urriaren 16an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

2013ko apirilaren 22a, astelehena

I. ERANSKINA, URRIAREN 16KO 220/2012 DEKRETUARENA

ARNO (ES2120001) KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAREN KARTOGRAFIA

MUGAKETA

(Ikus mapa)

[Http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_220_2012/conf_LIC_ZEC.xml&lang=eu](http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_220_2012/conf_LIC_ZEC.xml&lang=eu)

ZONAKATZEA

(Ikus mapa)

[Http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_220_2012/conf_ZON.xml&lang=eu](http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_220_2012/conf_ZON.xml&lang=eu)

II. ERANSKINA, URRIAREN 16KO 220/2012 DEKRETUARENA

ARNO (ES2120001) KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAREN
HELBURU ETA NEURRIAK**OINARRIZKOAK EDO KUDEAKETA-HELBURU DIREN ELEMENTUAK**

Arno babes bereziko eremu izendatzera bultzatu duten basa espezieak eta habitat naturalak eta Euskal Herriko biodibertsitatearen kontserbaziorako interesa dutenak oinarrizko elementu edo kudeaketaren helburu dira. Horrela, kontserbazio-egoera ona mantentzeko edo lortzeko, neurri aktiboak hartu behar dira. Beraz, objektuen katalogo bat osatzen dute, eta objektu horien gain neurri aktiboak, zuzentarauak edo eremua kontserbatzeko aplikatu beharreko arauak definitu behar dira.

Oinarrizko elementu edo kudeaketa-helburuen bitartez egindako hurbilketak, tokiko elementu esanguratsuak kontserbatzeko hartu beharreko neurriak hartzea baimentzen du, eta ekosistemak orokorrean hartuta baino errazagoa egiten du ebaluaketa, ahaztu gabe azken helburua ekosistemen egoera kontserbatzea dela.

Horrela, oinarrizko elementu edo kudeaketarako objektuak aukeratzeko ondorengo irizpi-deak hartu dira kontuan:

- Eremuan garrantzi handia duten eta Natura 2000 Sarean (eskualdean, estatuan eta Europako erkidegoan) zaintzeko garrantzitsuak diren habitat eta espezieak, baldin eta egoera txarrean badaude eta zaintzeko kontserbazio-neurri aktiboak hartu behar badira.
- Kontserbazio egoera bermatzeko, erregulatzea, moldatzea edo faboratzea beharrezkoa den giza erabileren menpekoak diren habitat edo espezieak.
- Beraiengan eragiteak beste espezie edo habitatengan, edo tokiaren osotasun ekologikoarengan onura ekarriko lukeen habitat edo espezieak.
- Beharrezko neurriak hartu ezean egoera txarrean egotera irits daitezkeela ikusi den habitat edo espezieak, eta baita talde taxonomiko baten edo ekosistema baten egoeraren adierazle onak izan daitezkeena, eta beraz monitorizatze lan espezifikoak eskatzen dutenak.

1.- HABITAT NATURALAK

Oinarrizko elementua	Justifikazioa
<u>Quercus ilex eta Quercus rotundifolia</u> artadi kantauriarra (Cod.UE.9340)	<ul style="list-style-type: none"> ○ Interes komunitarioko habitata da. ○ Hainbat ingurumen zerbitzu ematen ditu: lur-zorua eratu eta eutsi, CO₂ xurgatu, uraren kalitatea mantendu, aisialdirako guneak sortu. ○ EAeko artadiak kontserbatzeko gune garrantzitsua da Arno. ○ Gaur egungo kontserbazio egoera ez da egokia eta neurriak behar ditu hobetzeko. ○ Inguruaren artifizialtasuna dela eta, artadiak mehatxatutako hainbat fauna espezie ugaltzeko, babesteko eta elikatzeko toki dira. ○ Hauetako espezie askok baso helduetan sortzen diren mikrohabitaten errestaurazioa behar dute populazio bideragarriak sortzeko.
<u>Landazabal atlantikoa</u>	<ul style="list-style-type: none"> ○ Elkarri erlazionatutako mosaikoak eta interes komunitarioko hainbat habitat ditu: kareharrizko larre lehorrak (CodUE.6210); sega belardi po-break (CodUE.6510), txilardi lehorrak europarrak (CodUE.4030) eta otaberadun txilardi oromediterraneoak (CodUE.4090), baita beste larre, iradi, heskai eta baso txiki barreiatuak ere. ○ Antzinako erabilerak mantentzearen, larreak segatzearen eta hauek modu egokian ongartzearren menpekoea den habitat mosaikoa da. ○ Landazabal atlantikoaren mosaikoaren menpe dagoen fauna komunitatea dago, eta espezie horietako asko Habitat edo Hegazti Zuzentzeratuan sartuta daude, gaur egun gutxitzen ari direlako.

2.- PROZESU EKOLOGIKOAK

Oinarrizko elementua	Justifikazioa
<u>Konektibitatea</u>	<ul style="list-style-type: none"> ○ Arnoko KBEa txikia da eta beste natur guneetatik isolatuta dago. ○ Isolamendu hori hesi efektua eginez areagotzen duten azpiegiturak daude KBEan.

BABES BEREZIKO ERREGIMENEAN DAUDEN HABITAT NATURALAK, FLORA ETA FAUNA

Kudeaketa aktiboa eta beraz neurriak, jarraibideak eta arauak ondo definitzea exijitzen duten oinarriko elementuez gain, «babes erregimen berezikoak» kontsideratzen diren habitatak eta flora eta fauna basa espezieak aukeratzen dira.

Bertan, balio zientifiko, ekologiko edo kulturalengatik, berezitasun edo mehatxu maila-erengatik kontserbazioaren helburu diren habitat natural, espezie, subespezie eta populazio guztiak kontsideratu beharko dira, eta baita Habitat eta Hegazti Zuzentarauan edo Espainiako edo EAeko Mehatxatutako Espezieen Katalogoan sartuta egon eta Natura 2000 Sarearen barnean sartu eta Arno KBE izendatzearen arrazoi diren espezieak ere, eta beharrezkoa izango da kontserbazio egoera onean mantentzea.

Oraingoz kudeaketarako neurri aktiborik ez dute beharko beraien kontserbazioa oinarriko elementuren batengan hartutako neurriekin bermatuta gelditzen diren espezie eta habitatak.

Babes erregimen bereziko habitatak ondorengo taulan jasotzen dira:

Habitaten zuzentarauko kodea	EUNIS kodea	Habitata	Poligono-zenbakia	Azalera (ha)	Azalera (%)
4030	F4,23(X)	Europako txilardi lehorrak	27	21	2
4090	F7.44(Y)	Elorri-triskadun txilardi oromediterraneo endemikoak	11	22	2
8130	H2.64	Mendebaldeko luizi mediterraneo termofiloak	8	4	<1
8210	H3.2	Landaretza kasmofitikodun aldapa arrokatu kaltzikolak	5	2	<1

Babes erregimen bereziko espezieak ondorengo taulan jasotzen dira:

Espeziea	Habitat Zuzent.	Hegazti Zuzent.	CEEA	CVEA
Hagina <i>Taxus baccata</i>				IE
<i>Lucanus cervus</i>	II		LESRPE	
<i>Cerambix cerdo</i>	II		LESRPE	
<i>Rosalia alpina</i>	II		LESRPE	
<i>Elona quimperiana</i>	II		LESRPE	
Uhandre marmolairea <i>Triturus marmoratus</i>	IV		LESRPE	
Txantxiku arrunta <i>Alytes obstetricans</i>	IV		LESRPE	
Zirauna <i>Anguis fragilis</i>	IV		LESRPE	

2013ko apirilaren 22a, astelehena

Espezia	Habitat Zuzent.	Hegazti Zuzent.	CEEA	CVEA
Eskulapio sugea <i>Zamenis longissimus</i>	IV		LESRPE	
Sai zuria <i>Neophron percnopterus</i>		I	VU	VU
Miru beltza <i>Milvus migrans</i>		I	LESRPE	
Miru gorria <i>Milvus milvus</i>		I	EP	VU
Sugezale europarra <i>Circaetus gallicus</i>		I	LESRPE	R
Mirotz zuria <i>Circus cyaneus</i>		I	LESRPE	IE
Gabiraia <i>Accipiter nisus</i>		I	LESRPE	IE
Zuhaitz belatza <i>Falco subbuteo</i>			LESRPE	R
Zapa <i>Caprimulgus europaeus</i>		I	LESRPE	IE
Lepitzulia <i>Jynx torquilla</i>			LESRPE	IE
Etxe-txinboa <i>Sylvia undata</i>		I	LESRPE	
Antzandobi arrunta <i>Lanius collurio</i>		I	LESRPE	
Kiropteroak	II, IV			
Europako basakatua <i>Felis sylvestris</i>	IV		LESRPE	IE

Habitat eta Hegazti Zuzentzarauen eranskinak. CEEA, Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoa. CVEA, EAEko Espezie Mehatxatuen katalogoa. LESRPE, Babes bereziko erregimenean dauden basa-espezieen zerrenda. EP, desagertzeko arriskuan. VU, zaurgarria. R, arraroa.

OINARRIZKOAK EDO KUDEAKETA-HELBURU DIREN ELEMENTUENTZAKO HELBURU ETA NEURRIAK

Oinarrizko elementu bakoitzarentzat **gaur egungo egoera** definitzen da. «Habitat baten kontserbazio egoera», habitatarengan eta bertan bizi diren ohiko espezieengan eragiten duten eta bere biziraupena zalantzan jar dezaketen eragileen multzoa da. Habitat natural baten «kontserbazio egoera» «onuragarria» kontsideratzen da, bere azalera egonkorra denean edo handitzen denean eta epe luzera mantentzeko eta etorkizunean existitu ahal izateko egitura eta funtzio espezifikoak egokiak direnean. Modu berean, «espezia baten kontserbazio egoera», espeziearengan dauden eragileak eta epe luzera bere populazioen banaketan eta garrantzian zerikusia duten eragileen multzoa dela kontsideratzen da. «Kontserbazio egoera» «faboragarria» dela kontsideratzen da, habitatean epe luzera bere presentzia arriskuan ez dagoela eta beraz, bere banaketa naturala etorkizunean jaitziko ez dela eta arriskuan egongo ez dela adierazten duten datuak badaude.

Interes komunitarioko habitat eta espezie guztien kontserbazio egoera ona lortzea da azken helburua, horrela habitat eta espezie guztiek kalitatea hobetu ahal izateko eta azalera handitu ahal izateko, eta gainera, etorkizunean ere hobetzen jarraitzeko aurreikuspenak egon daitezen.

Ahal izan den guztietan Habitat Zuzentzaraua aplikatzeko egindako informean (17. artikulua) gomendatzen diren parametro kuantitatiboak erabili dira. Horrekin, informazio estandarizatua eta konparagarria edukitzea lortu nahi da, Estatu mailako eta komunitateko oinarrizko legedia betetzeko eta etorkizuneko informea bete ahal izateko. Horretarako, oinarrizko elementu gisa aukeratu diren habitat eta espezie guztien kon-

tserbazio egoerari buruzko fitxak sartuko dira eranskinean, testu deskribapenekin batera. Taulatan agertzen diren deskribapenak, fitxa hauen laburpena dira.

Kontserbazio egoera definitzeko erreferentziazko balore argiak eta kontagarriak definitzea aholkatzen da. Kontserbazio egoera faboragarriaren definizioa eta kontserbazio egoera baloratzeko kalibrazioak, ikerketa lan garrantzitsua eskatzen du. Gaur egun, parametro kuantitatiboak ez daude eta kasu gehienetan ez dago horri buruzko informazio egoki eta nahikorik.

KBEn dauden habitaten artean, kontserbazio egoera baloratzeko lehen urratsak eman dira, banaketaren kartografia eginez, baina bere kontserbazio egoera baloratzeko adierazle kuantitatiborik ez dago.

Kasu hauetan, tresna honen helburu da informazio gabezia horiek zehaztea eta oinarrizko elementuen alde, gaur egungo kontserbazio egoera zehatzago definitu ahal izateko neurriak ezartzea.

Behin oinarrizko elementu guztien gaur egungo egoera zehaztuta, amaierako **helburuak** proposatzen dira, bakoitzaren kontserbazio egoera ona bermatzea ahalbidetuko dutenak. Helburu horiek ezingo dira beti lortu dokumentuan jasotako neurriak aplikatzeko aldiari. Askotan, erantzun epea edo sistema naturalek eboluzionatzeko behar duten denbora oso luzea izaten da edo abiapuntua oso egoera txarrean dago, beraz, berehalako neurriak planteatzen badira ere, exekuzioaren aldiari hasierako aurrerapausoak besterik ez dira nabarmenduko.

Ondoren, gaur egungo kontserbazio **egoera baldintzatzen duten faktoreak** deskribatzen dira, oinarrizko elementuek helburu bezala definitu den kontserbazio egoera mantentzea erraztu edo zailduko duten faktoreak. Faktore hauetako batzuk dokumentutik eta kudeatzaileen kompetentzia eta erabakietatik kanpo daude, beraz, plan honetatik at landu behar dira. Hala ere, hori horrela den kasuetan, helburuak lortzea horren menpekoa izan daitekeela kontuan hartuta, atal honetan identifikatuko dira.

Esan bezala, azken helburuak zenbaitetan ezin dira lortu dokumentua aurrera eramateko jarritako sei urteetan. Horregatik, helburu bakoitzerako epe horretan lortu beharreko **emaitzak** edo helburu operatiboak jarri ditugu, aldeko kontserbazio egoera lortzeko bidea ahalik eta arinen egiteko, dauden bitartekoak kontuan hartuta.

Amaitzeko, emaitza bakoitzarentzat **neurriak, kudeaketarako jarraibideak** eta **arauak** definituko dira, emaitza horiek lortzea ahalbidetuko dutenak.

Kasu guztietan, oinarrizko elementuak edo kudeaketa-helburuak definitzeak, ebaluagarriak diren helburuen gainean kudeaketa errazten dute. Hala ere, beti kontuan hartu behar da plan honetan aipatzen diren neurri guztien helburua, **tokiaren osotasun ekologikoa** bermatzea dela, **Euskadiko babestutako zonaldeen sarean duten ekarpena** bermatzea eta **ekosistemek eskaintzen dituzten baliabide eta ingurumen zerbitzuak** bermatzea.

1.- ARTADI KANTAURIARRA (Cód.UE.9340)

Kontserbazio egoera

Artadi kantuariarrak Arnon 555 ha-ko azalera hartzen du, babestutako gunearen % 50 eta Natura 2000 esparruetan baso mota honen % 20 Euskal Autonomia Erkidego guztian.

Azalera potentzialaren % 60 hartzen du. Ez dago bere kontserbazio egoerari buruzko bestelako datu kuantitatiborik.

Basoen zatiketak bere perimetroa luzatzen du, eta azalerarekiko duen ratioa ere. Honek kanpoko presioen aurrean zaurgarriagoa izatea dakar. Artadi kantauriarra duten 39 esparru daude kartografiaturik, 15.4ha-ko batez besteko azalerarekin; hala ere, asko aldatzen da azalera: 441ha-ko artadi bat dago, baina baita 1 ha baino gutxiago duten 19 esparru ere. Alde positibotzat aipa daiteke, esparruen arteko batez besteko distantzia 68 m-koa besterik ez dela.

Beste datu kuantitatiborik ezean, eta balorazio kualitatiboetan oinarrituz, bere egitura ezegokia dela kontsideratzen da. Zuhaitz gazteen oin kopurua altua da, ernaberritutako aleetatik eratorriak, eta ehunka urte dituzten sustrai sistemetatik datoz; ernaberritutako oinen dentsitate altuak argia sartzea galarazten du, oin helduen garapena galaraziz. Horregatik, behe basoan hildako enborrak agertzen dira. 10cm-tik beherako diametroa duten hildako oinek, berriz, masa osoaren % 11 baino gehiago osatzen dute. Bestalde, hazien bitartez ematen den birsortzea eskasa da, eta aldaera genetikoa zalantzan jartzen du, urrakortasuna areagotuz.

Badaude, ordea, erreferentziatzat har daitezkeen kontserbazio egoera duten orbanak ere. Esaterako, Argin Karobi edo Zabala Haundia hegoaldeko isurialdean eta Txondor-leku iparraldean. Horrez gain hainbat elementu nabarmen ere aipatu behar dira, artadiari heterogeneotasuna ematen diotenak:

hostoerorkorren baso txikien zonaldea (hariztia), pago eta arte motzak dituzten hainbat puntu eta harriaren azalera dela eta irekiagoak diren zonaldeak. Faktore negatibo bezala, esan beharra dago hainbat puntutan egur ustiaketarako landaketa batzuk badaudela.

Baso ustiaketa gehienak bertan bera utzi izanagatik eta inpaktu puntu esanguratsurik ez egoteagatik, habitat honen kontserbazioa eta etorkizunerako aurreikuspenak ontzat hartzen dira.

Artadi kantauriarra: Desegokia-kaltegarria

Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
Desegokia-kaltegarria	Desegokia-kaltegarria	Ezezaguna	Ona-aldekoa

Baldintzak

Ez dago gaur egungo egoera, kudeaketaren ondorioak eta artadiaren egoera hobea gora ematen ari diren aurrerapausoak ebaluatu ahal izateko adierazle kuantitatiborik. Hala ere, badira artadi esparru isolatuak, eta baita artadiaren azalera potentzialetan introgresioak ere, baso-landaketa produktiboak egin direlako.

Artadien kalitatean nabarmenki eragin izan duten erabilera tradizionalak desagertu dira. Gaur egun oraindik mozketaren bat egiten bada ere, txikiak dira, eta ez oso esanguratsuak, eta ez da ia egurrik ateratzen.

Resalbeoa «goi mendia» eraldatzeko ohiko metodoa da, izan ere, argia sartzea ahalbidetzen baitu, kimuen arteko lehia gutxituz eta uraren, argiaren eta elikagaien jasotzea hobetuz eta beraien indarra eta hazkuntza handituz; ziurrenik, gainera, ezkurren produkzioa ere hobetuko du. Hala ere, lurzoru urrietan resalbeoak ez ditu espero ziren emaitzak ematen eta higadura areagotzen du, lurzorua galera handituz. Gainera, kontuan hartu behar da puntu batzuetan, Arnoko tontorrean esaterako, liken eta goroldioen estratua oso garatuta dagoela, eta lurzoria, arrokkak eta enborrak ia guztiz estalita daudela. Resalbeoak baso barneko komunitateetan eragina izan dezake sakonera gutxiko lurzoruetan.

Resalbeoak onartuz gero, epe laburrean ganaduarentzako ixtea ez litzateke beharrezkoa izango, izan ere, eragindako ernaberritzeak ekidingo babilutze ganaduak. Aurrerago, behin «tantai baso zepak» deiturikoak lortuta, hazi bidezko birsortzea bultzatzeko, komenigarria izango litzateke ganaduari sarrera mugatzea.

Egur ustiaketak, forma antolatuta eta kontrolatuta, resalbeo plan baten barnean, eskaerari erantzuna eman diezaioke eta birsortzean eta masaren heltze prozesuan inpaktu positiboa eduki, epe luzera, egokiak diren tokietan mendi altu izateko bilakaeran lagunduz.

Ganaduaren presentziak artearen birsortze naturala galarazten du puntu batzuetan, eta ahuntzen kasuan zuhaitzetan kalteak sortzen dituzte. Hala ere, Arnoko artadien kudeaketarako tresna izan daiteke ganadua, beti ere erabilera arrazional bat emanez, ernaberritutako kimuak kontrolatuz. Gainera, ganaduari esker, artadi barneko hainbat bide eta xendetatik ibil daiteke.

Eta aktibitate marginala bada ere, baldintza meteorologikoak egokiak ez direnean larreak mantentzeko sua erabiltzeak aldizkako suteak sortzen ditu.

Badaude antzinako baso landaketak, zuhaitz oso helduekin, zaharrekin eta eroritakoekin, non basoko lan urriek behe basoko ohiko landaretza birsortzea ahalbidetu duten. Intsinis pinuaren errentabilitate urriak, landaketen eraldaketa dakar, beharrezko aholkularitza eta euskarriak edukiz gero.

KBEaren % 90ak jabetza pribatua du, artadiaren azalera garrantzitsuak barne. Gaur egun, bertako basoaren errestauraziorako eta hobekuntzarako laguntzak daude, baina badirudi ez dutela harrera onik izan. Onuradun potentzialentzat ezezagunak dira laguntza horiek, baina laguntza sozial handia dute, epealdi laburreko espezieen landaketak dituzten laguntzekin alderatuz.

Artadietatik edo baso mistoetatik igaro daitezkeen bideak ireki daitezke baso landaketen ustiaketatik lortutako egurra ateratzeko.

Zuhaitz helduen, zaharren edo interesekoan eta artadiaren dibertsitatea eta heterogeneotasuna areagotu dezaketen elementuen (haritzak, pagoak, haginak eta beste zuhaitz espezieak eta ur puntuak) datu base bat eta kartografia zehatza ez egoteak, mikrohabitaten eta balio ekologiko handiko elementuen kontserbazioa eta babesa zailtzen du.

Helburu eta neurriak

1. helburua	Gutxienez Arnoren % 75 ondo egituratutako eta zatikatu gabeko artadi helduz estalita egotea lortzea.
1.1 emaitza	Artadiaren azalera % 10 handitzen da.
Neurriak	<ol style="list-style-type: none"> 1) Pinudi oso helduak eta bertako basoko birsortzea azaltzen dutenak kartografiatzea, eboluzio naturalean lagunduz, pinu oin isolatuen eraztunketa eta bakantze jarraituak eginez. 2) Dokumentu honetan ageri den zonakatzearen arabera, Artadiko zaharberitze ekologikoko eremutat jotzen dira baso landaketetako 125ha. 3) Artadi kantauriarra zaharberitzeko gutxienez landaketen 55hant jabeekin kontserbazio akordioak ezartzea. «Baso kudeaketa jasangarrirako Plana» egingo da, 2007-13 «Landa Garapen Jasangarrirako Programa»-ren eta ondorengoan esparruan, plan honetarako aurreikusita dauden laguntzak jaso ahal izateko. Ahal denean, «zaintza-akordioak» sustatuko dira, eta alternatiboki, bi-odibertsitate enkante eta kreditu sistema martxan jartzea baloratuko da, hektareako egiten diren ordainketa homogeneoak ordezkatzeko. 4) Landa garapeneko programan aldaketa bat proposatu jabetza pribatuko lurretan ezartzen den edozein neurrirentzako (agiriko helburuak lortzen laguntzen badu eta ingurumen administrazioa modu egokian informatua badago) laguntzak lehentasuna izan dezan eta programan aurreikusitakoaren gainean % 20ko gehikuntza izan dezan.

<p>Arauk</p>	<p>5) Ondare genetikoa babestu eta kontserbatzeko asmoz, leheneratze proiektuetan erabiliko diren arteak eremuan bertan edo inguruan aukeratutako hazietatik lortuak izango dira.</p> <p>6) Berreskuratutako eremuetan abere ustiapenak ezabatu egingo dira, eta beharrezkoa izanez gero, eremuan itxiturak ezarriko dira abelburuak igaro ez daitezten. Baimenik gabeko erreketak eta suteak jasan dituzten zonaldeetan ere ustiapen horiek ezabatu egingo dira.</p> <p>7) Arteen mozketa debekaturik egongo da, basoaren hobekuntza eta leheneratze ekologikoa helburutzat duten eta eremua kudeatzen duen administrazioak informatutako ekintzetan izan ezik.</p> <p>8) Sastrakadiak erretzea debekaturik egongo da, leheneratze ekologikoa lortzeko asmoz organo kudeatzaileak baimendutako ekintzen kasuan izan ezik; eta betiere artadia birsortzeak izango du lehentasuna.</p>
<p>Jarraibideak</p>	<p>9) Baso landaketak artadi bihurtzeko akordioetan honako lursailek izango dute lehentasuna: Artadien barnean dauden lursailak, tamaina txikiena duten artadietatik gertu kokaturik daudenak edo zatikatzea murrizteko asmoz, basoxken arteko tartea murriztu dezaketen lursailak. Ekintzak aurrera eramaterako garaian, mozketa txandatik gertu dauden pinudiek izango dute lehentasuna, Arnoko gailurreko inguruei lehentasuna emanez.</p> <p>10) Baso landaketak artadi bihurtzeko proiektuetan, batez ere, malda handia duten eremuetan baso-soilketak ekidingo dira. Honen orde, 2007-13 Landa eremuko Garapenerako Programaren eta ondorengo araberako, berreskuratu beharreko lur sailetan 40m-ko diametroko soilguneak irekiko dira higaduraren ikuspuntutik sor daitezkeen aurkako eraginak ekiditeko asmoz.</p> <p>11) Leheneratze proiektuetan arteak erabiltzeaz gain, artadietako ohiko espezie sekundarioak erabiliko dira; gurbitza, karraskila, erramua, gartxua, etab.</p>
<p>1.2 emaitza</p>	<p>Artadi kantauriarraren naturaltasuna hobetuko da.</p>
<p>Neurriak</p>	<p>12) Artadiarentzako «Naturaltasun indize» bat definitu eta jarraipen protokolo bat ezarri. Indize honek honako aspertuak izan beharko ditu kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Baso masaren egitura, horretarako honakoa baloratuko da: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Egitura diametrikoa. ▪ Oinen dentsitatea, guztira eta espezie bakoitzarena. ▪ Oinaldeko azalera, totala eta espezie bakoitzarena. ▪ Oinarriko azalera dentsitatearekin zatitzean lortutako batez besteko diametro koadratikoa, artearentzat eta gainontzeko zuhaitz espezieentzat. ▪ Mota diametrikoko bakoitzarentzat zepa edo ezkur birsortze bidez sortutako arte oinen portzenta-jea.

2013ko apirilaren 22a, astelehena

	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Hildako egur kopurua, espeziea, egoera (zutik edo lurrean), zatien diametroa eta deskonposaketa mailaren arabera. ○ Masen zatikapena. <p>13) Hektarea 1eko 10 lursail aukeratu 5 urtean behin baldintza kontrolatuen pean artadiaren kontserbazio egoera neurtzeko. Batez ere, ganaduaren interbentzioarekin eta gabe.</p> <p>14) Lehenengo urtean zehar malda gutxi eta lur sakona duten hektarea 1-eko 10 lursail hautatuko dira resalbeo esperimentalak egiteko eta «goi mendiaren eraldaketa» egiteko, batez ere, Mendaro eta Mutrikuko Udalen jabetza publikoko artadietan. Moztutako egurra lurrean bertan geratuko da hildako egur ekarpen gisa. 5 urtera eta edozein kasutan dokumentu honen indarraldia amaitu aurretik, emaitzen ebaluazioa egingo da eta honakoa izango du kontuan; arte oinen diametroaren garapena, goroldio eta likenen gaineko eraginak eta ekintzak aurrera eramandako eremuetako espezie sekundarioen hedapena.</p> <p>15) Aurreko neurriaren harira, egurra eta zura ateratzearekin, mendi altua bilakatzearekin eta artadiaren naturaltasuna hobetzearekin bateragarriak diren artadiko resalbeoei eta artadi kantauriarrengan eragiten duten ohitura onei buruzko jarraibideak idatzi. Lortutako etekina resalbeoak exijitzen duen kostearekin ez bada konpentsatzen, bertako basoen kontserbazio lanengatik laguntzak lortzeko aukera aztertuko da.</p> <p>16) Ganaduak artadiaren birsortze naturala galarazten duen zonaldeak identifikatu eta kartografiatu, eta jabeekin bertara sarrera mugatzeko akordioak lortu.</p>
<p>Araukak</p>	<p>17) Baso inbentarioak eta Baso Antolamendu Proiektuek basoen naturaltasun indizea eta ekosistema hauetako osagai biologiko, egitura eta funtzionalei buruzko informazio adierazgarria eta nahikoa eduki beharko dute.</p> <p>18) Basoak antolatzeako proiektuak ingurumen aldetik ebaluatuko dira eta helburuak, adierazle neurgarriak eta neurri espezifikoak izango dituzte, basoetako biodibertsitatea babesteko, naturaltasun eta osotasun ekologikoa hobetzeko eta ingurumen zerbitzuen prestazioa bermatzeko. Neurri horiek zehaztuko dira behar izanez gero ingurumen kontratuetan edo jabe pribatuekin adosteko kontserbazio akordioetan sartzeko moduan. Basoak antolatzeako proiektuek idazteko edo garatzeko laguntzak jasotzen badituzte, laguntzen % 40, gutxienez, neurri espezifiko horiek aplikatzeko erabiliko da.</p> <p>19) Basoei nabarmen eragin diezaieken beste edozein plan edo proiektuk Natura 2000 Sarean izan ditzakeen eraginak egoki ebaluatu beharko dira, natura-ondarearen eta biodibertsitatearen 42/2007 Legean eta ezartzekoa den gainerako legerian. Eskumena duen ingurumen-organoak ebaluatuko du, eta organo hori proiektuaren sustatzailearekiko independentea izan beharko da, biak administrazio publikoak diren kasuan.</p> <p>20) Landa Garapeneko Programako laguntzak jasotzeko, «Basoen Kudeaketa Jasangarrirako Planetan» jasotako neurriek eta tresna honetan ezarritakoak bat etorri behar dute. Horretarako, sustatzaileak manuzko txosten loteslea eskatu behar du, organo kudeatzaileak baimena edo onarpena eman baino lehen; txostena Natura 2000 Sarearen ardura duen ingurumen-administrazioak egingo du.</p>

Jarraibideak	<p>21) Egur eskaera resalbeo bidez ateratzen den egurrarekin aseko da, eta ateratzen den egurraren zati bat bertan geratuko da, hildako egurraren bolumena handituz, eta espezie xilofagoen beharrei erantzunez.</p> <p>22) Lursailetan egindako itxitura esperimentalen emaitza bezala artadiaren birsortze naturalean hobekuntzak ikusiko balira, artzaintza estentsiboaren antolaketaren ikerketa bat aurrera eramango litzake.</p> <p>23) Partikularrek entresakak egiten dituzten artadien zonaldeak «resalbeorako lursail esperimental» moduan izendatuko dira eta Errestaurazio Ekologikoko Zonaldeen barnean sartuko dira, 14. neurrian aipatzen den jarraipena eginez.</p>
---------------------	---

2.- LANDAZABAL ATLANTIKOA

Kontserbazio egoera

Funtsezko elementuen multzo honetan habitat hauek daude: txilardi atlantiko lehor azidofiloak (Cod.UE.4030), elorri sastrakadi mediterraneoak (Cod.UE.4090), albitz belardiak eta *Mesobromion-go* larre karetsu erdilehorrak (Cod.UE.6210) eta artzaintzarik izan ez duten sega-belardi atlantikoak (Cod.UE.6510, larratutako larreak eta erabil gabeko larreak), zuhaixka eta basoxkak.

Guztira 136 hektareako azalera hartzen dute.

Sega belardien kasuan izan ezik, gainontzeko habitatak ondo ordezkaturik daude EAEko eremu babestuen sarean. Bai maila kuantitatiboan, zuzentarauak eskatzen duen maila minimoaren oso gainetik, baita banaketa espazialean ere, izan ere, sareko leku ugarian ageri baitira.

Sega belardiak atzerakada nabarmena jasaten ari dira eta bertan behera uzten ari diren nekazal eta abeltzaintza aktibitateen menpe daudenez EAEko habitat mehatxatuenak dira. Kontuan hartuta mozteko zelai horiek gaur egun nola maneiatzen diren, pentsa dezakegu kontserbazio egoera txarra izango dela, eredu tipikoekin alderatuta. Hala eta guztiz ere, kontserbazio egoera zein den zehazteko osaera floristikoa zehatz-mehatz aztertu beharra dago.

Kasu gehienetan formazio hauek mosaiko bat eratuz agertzen dira, ondorioz habitat moten banakako interpretazioa eta estimazio kuantitatiboa zailtzen duten trantsizio egoerak ematen dira.

Edozein modutan, habitaten berezko balioa alde batera utzita, mosaikoa hartu dugu funtsezko elementutzat. Horrek esan nahi du gestioan kontuan hartu behar direla orbanen tamaina eta forma, banaketa, kokapen erlatiboa eta mosaikoaren heterogeneotasuna eta dibertsitate biologikoaren kontserbaziorako balioa handitzen dituzten gainerako elementu naturalak. Baina, ez dago mosaikoaren sinplifikazioa ebaluatu eta ekiditea ahalbidetzen duen adierazle heterogeneorik.

Larre eta belardien sinplifikazioa eta zuhaixka eta basoxka eta beste egitura osagarrien galera dela eta landazabal atlantikoaren homogeneizatzen ari dela ikusten da.

Nekazal sistema hauetako ohiko espezieen populazioen eta beren joerari buruzko daturik ez dago.

Hala ere, landazabla kontserbatzeko nekazal eta abeltzaintza aktibitateak ezinbestekoak direla kontuan izanik, baserritarren artean dagoen belaunaldi arteko errelebo faltak etorkizuneko ikuspegi nahiko ezkorra agertzen du.

Landazabal atlantikoa: Desegokia-kaltegarria			
Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
Ona-aldekoa	Desegokia-kaltegarria	Ezezaguna	Desegokia-kaltegarria

Baldintzak	
<p>Nekazaritza eta abeltzaintza aktibitateen uzteak, ekosistema mota hau desagertzen joatea dakar, beraz, ekosistema hauen kontserbaziorako aspektu garrantzitsuenetariko bat erabilera horien mantentzea bultzatzea da. Zona horiek «balio altuko nekazal eremuen» edo sistema baliokideen barnean sartzeak ingurumen-zerbitzuengatik ordainketa-sistemak ezartzea erraztu dezake.</p> <p>Euskadiko Landa Garapen Jasangarrirako 2007-2013 Planean, landazabaleko biodibertsitatea kontserbatzeko garrantzia duten neurriak barneraturik daude: basozain eta nekazarietzako ingurumen-aholkularitza, artzaintza estentsiboa bultzatzea eta larre eta belardiak mantentzea, landa eta belardietako landaretza entomofiloa kontserbatzeko erlezaintzari laguntzak, sega eta landaketa belardiak kontserbatzea eta heskaiak mantentzea.</p> <p>Neurri horiek Arno KBEan duten aplikazioari buruzko daturik ez dago, baina onuradun potentzialak direnek duten neurri horien inguruko ezagutza ezak, aplikazioa oso baxua izan dela adierazten du.</p> <p>Heskaiak KBEko hainbat lekutatik kenduak izan dira eta alanbre ziztadunagatik ordezkatu dira.</p> <p>Landazabalak eratzen duen mosaiko dinamikoa eta Arnon ekosistema hauetan eman den biodibertsitate galerari buruzko daturik ez dagoen arren, beste zenbait lekutan hegazti basatien galera eragin duten baldintza berdinak ematen dira. Antzandobi arrunta bezalako espezieak nekazal sistema hauen egoeraren adierazle dira eta ekosistemetan ematen diren aldaketen aurretiko abisu sistema bezala balio dezakete.</p> <p>Egun, landare espezieen galera ematen ari da, izan ere, zenbait larre, emankorrakoak diren kanpoko espezieentzat erreserbatuak baitaude eta bestalde, zenbait puntutan lurra ongarrizko munda gehiegi erabiltzeak espezie nitrofiloen agerpenean lagundu baitu. Sinplifikazio honek nekazal sistema honen piramide trofikoaren oinarria diren espezie polinizatzaileengan eragina izan dezake, baina, eragin hauek ez daude frogaturik.</p>	
Helburu eta neurriak	
2. helburua	Landazabal atlantikoaren lagin esanguratsua kontserbatzea eta habitat eta korridore ekologiko gisa duten funtzioa hobetzea.
2.1 emaitza	Gutxienez gaur egungo landazabalaren azaleraren % 60 mantentzen da, oraingo heterogeneotasunarekin.
Neurriak	<p>24) Honako aspektuak kontuan izanik landazabala eta bere osagaien kontserbazio egoera ebaluatzea ahalbidetzen duten deskribatzaile kuantitatiboak ezartzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Landazabal azalera. - Sega-belardien landaretza konposizioaren aberastasuna. - Heskaien metro linealak eta kalitatea. - Paisaiaren heterogeneotasunaren indizea. - Ohiko hegaztien dentsitatea. - Polinizatzaileen dentsitatea. <p>25) Heskaiak, basoxkak, zuhaitz isolatuak eta landazabalaren heterogeneotasuna handitu eta funtzionalitate ekologikoa hobetuko duen beste edozein elementu kartografiatu eta «Basa fauna eta florarentzat balio duten elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario ireki georreferentziatuan» sartzea.</p> <p>26) Landa Garapen Jasangarriaren Planaren barruan, Olatzeko abeltzaintza ustiapenen artean gutxienez bostekin ingurumen kontratuak sinatzea. Bertan honakoa barneratuko da: ustiapenen ingurumen diagnostikoa eta hemen definitutako kontserbazio helburuak kontuan izango dituen kudeaketa plan osoa.</p>

	<p>27) Dokumentu honen balio epearen barruan, Olatz inguruko heskai naturalen 700 m leheneratzea, horretarako bertako genotipodun landareak erabiliz. Heskaiak 4 m baino gehiagoko altuera eta zabalera izatea, anitzak izatea eta beste heskai zein basoxkekin konektatzea bilatuko da.</p> <p>28) Ingurumen kontratuetan sega belardi bezala inbentariatutako larreen azaleraren % 60 gutxienez mantentzeko konpromisoak barneratzea. Lehenago larreen kalitatea, aberastasuna eta landaretza konposizioari buruzko landa ikerketa egingo da.</p> <p>29) Sega-belardien mantentze-kostuen analisia egin eta lortutako emaitzekin, kontserbaziorako helburuetan eragina duten LGParen laguntzen mantentze-kostuak berrikusi. Momentu horretara arte, laguntza horiek mantenduko dira; alternatiboki, biodibertsitate enkante eta kreditu sistema martxan jartzea baloratuko da, hektareako egiten diren ordainketa homogeneousak ordezkatzeko.</p>
<p>Jarraibideak</p>	<p>30) Kontserbazio helburuekin bat datozen LGPko laguntzek lehentasuna izango dute eta ezarritako balioekiko % 20 handituko dira.</p> <p>31) Sega-belardiak mantentzeko kontratuek ondorengo konpromisoak jaso behar dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Laborantzetan, landaketetan edo larreen landaretza konposizioa eraldatu dezakeen beste edozein erabileratan larreen transformaziorik ez egitea. - Soilik bat edo bi belar mozketak egitea, lehena landareen loratzearen ostean (maiatza bukaera ekaina). - Gorotzekin ongarritze bakarra egin neguan. - Ez erabili herbizidarik, baimendutako landaretza inbaditzaile espezieak erradikatzeko ez bada. - Ez bazkatu edo urtean bitan besterik ez bazkatu, bat udazkenean eta beste bat, leunagoa udaberrian. - Soilik pobretutako eremuak berreskuratzeko erein. Horretarako sega belardietako ohikoak diren 4 espezie erabiliz, horretarako lekadun eta graminea espezieen erabilera gomendatzen da. - Ez kareztatu, goldatu ez eta surik erabili. - Azpiegiturek ezartzeagatik edo beste edozein arrazoirengatik bere azalera ez murriztu. <p>32) Heskaien egoera ona mantentzeko ondorengo aholkuak ezartzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Anfibioen habia egiteko garaian, kumaldi eta dispersio garaian, martxoaren 1etik abuztuaren 31ra, heskaietako edozein maneiu ekidin. - Heskaiak bi urtean behin edo hazkuntza moteleko espezieak badira 3 urtean behin kimatu, izan ere, zenbait espeziek soilik bigarren hazkuntzako adarkaduretan loratzen baitute eta urtero kimatzeak fruitu kopurua murrizten baitu. - Ustiaketa bereko heskaietan txandakako inausketak egin, eta ez guztiak urte berdinean, horrela heren bat baino gehiago ez daitezen moztu urte berean.

	<ul style="list-style-type: none"> - Larre aldera hazten diren adarrak kimatzean, ahal den neurrian, heskaiaren 2 m-ko gutxienerako zabalera errespetatu. - Ez egin inausketa gogorrik, izan ere, heskai altu, zabal, dentso eta sastrakadunek gordeleku eta elikagai gehiago eskaintzen baitiote faunari. - Fruitu garaian moztu behar bada, fruitudun ahalik eta adar gehien mantendu basa fauna elikatzeko. - Ongarritzatu edo herbizidak erabiltzerako garaian, heskaiaren oinarritik 2 m-ko distantziara baino gehiago egin. - Heskaitik laborantza edo larrera dagoen tartean gutxienez metro 1eko zabalera duen belarrezko sail bat mantendu. <p>33) Indarrean dauden laguntzez gain, Plan honen aplikaziorako laguntza berriak ezarri ahal izango dira, edo dauden laguntzak moldatu ahal izango dira.</p>
--	---

3.- KONEKTIBITATEA ETA BESTE JARDUNBIDE EKOLOGIKOAK

Kontserbazio egoera			
<p>Arnoko KBEa 1000 ha inguru dituen kareharrizko mendigunea da eta oso eraldatua izan den lurralde baten barnean kokaturik dago. Tamaina hau dela eta, ez dago soilik artadietakoak diren basa espezieen populaziorik.</p> <p>Ikerketarik ez dagoen arren, ziurrenik Izarraitzekin nolabaiteko konektibitatea (lurraldeak organismo fluxua izateko duen gaitasuna, organismoek beraien bizi zikloko, urtaro guztietan baliabide nahikoa izatea ahalbidetuz eta populazioen arteko trukaketa genetiko emateko mugimenduak bermatuz.) izan dezake, Mendaro eta Lastur, Kilimoierreka eta Sasiola haran ingurutik doazen artadien bitartez.</p> <p>Alde horretatik, azpiegitura hauek oztopo handiak jartzen dituzte: N-634 errepide nazionala, bi-koiztutako A-8 autopista, Donostia-Bilbo ardatzean ibilgailu zirkulazio handia jasaten duena, GI-3230 errepidea eta trenbidea.</p> <p>Heskai kopurua pixkanaka behera egiten ari da.</p>			
Landazabal atlantikoa: Desegokia-kaltegarria			
Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
Ona-aldekoa	Desegokia-kaltegarria	Ezezaguna	Desegokia-kaltegarria
Baldintzak			
<p>Arno eta Urdaibai arteko korridore naturala oso eraldatua dago eta habitat gisa zein lotura edo konektibitate gisa balio oso eskasa duten baso landaketa ugariz betea dago.</p> <p>Arno eta Izarraitz arteko lotura nabarmenagoa da baina bien artean dauden baso masak eta sistema estentsiboak ez daude basa faunarentzat igarotzea bermatzen duten erabilerak ziurtatzeko ez eremu babestu batean ez eta Natura 2000 Sareko lekuren batean barneraturik.</p> <p>Arnoko koherentzia hobetzeko, Arno eta Natura 2000 Sareko beste zonalde batzuen arteko lotura berreskuratzeko aldeko baldintza sozioekonomikoak ematen dira.</p>			

<p>Olatzen, tradizionalki lursailak banatzen zituzten heskaiak burdin harizko hesiz ordezkatuak izan dira, honek faunarentzako gordeleku eta habitaten galera eta desplazatzeko zailtasuna suposatzen du. Badaude heskaiak berrezarri eta mantentzeko laguntzak, baina hauen onarpen maila eskasa da, eta ez da honen arrazoia ezagutzen.</p> <p>EAerako korridore ekologikoen proposamen tekniko bat dago, paisaiaren eskalan egina. Baina ez dago korridore horretako faunaren erabilerari buruzko datu espezifikorik, ez dira oztopo gehien eragiten duten guneak identifikatu eta ez da konponbiderik planteatu.</p>	
Helburu eta neurriak	
3. helburua	Arno eta Izarraitz arteko lotura bermatzea
3.1 emaitza	Gutxienez gaur egungo landazabalaren azaleraren % 60 mantentzen da, oraingo heterogeneotasunarekin.
Neurriak	<p>34) Debako komunikazio ardatzean ematen diren desplazamendu flu-xuak eta puntu beltzak aztertu.</p> <p>35) Dokumentua indarrean dagoen lehen bi urteetan Izarraitz eta Arno artean proposatutako korridorea birmugatu, modu egokian dimentsionatu eta eskala zehatzean karakterizatuko da. Horretarako, erabilera eta kudeaketaren antolamendurako jarraibideak prestatuko dira.</p> <p>36) Debako komunikazio ardatzeko azpiegiturak iragazkortzea, hala badagokie.</p> <p>Heskaiak eta gainerako lotura egiturak zaintzeko neurri, jarraibide eta arauak aplikatzea.</p>
Arauak	<p>37) Bi espazioen arteko lotura espazial eta funtzionala modu eraginkorrean bermatzeko, Arno-Izarraitz korridorea kontuan izan beharko da bai, ingurumen eta lurralde plangintzan bai eta ingurumen ebaluazio jardunbideetan ere.</p>

BABES BEREZIKO ERREGIMENEAN HABITAT NATURALAK, FLORA ETA FAUNA

Habitatak	Kontserbazio egoera	Aldeko neurriak
Txilardi atlantiko kaltzikolak	Ona-aldekoa	8, 27, 39-44
Elorri-triskadun txilardi oromediterraneo endemikoak	Ona-aldekoa	8, 27, 39-44
Mendebaldeko luizi mediterraneor termofiloak	Ona-aldekoa	8, 27, 39-44
Landaretza kasmofitikodun aldapa arroka-tsu kaltzikolak	Ona-aldekoa	8, 27, 39-44
Turismoak ustiatu gabeko kobak	Ezezaguna	39-44

2013ko apirilaren 22a, astelehena

Espezieak	Kontserbazio egoera	Aldeko neurriak
Hagina <i>Taxus baccata</i>	Ezezaguna	1-4, 17-20, 26, 39-44
<i>Lucanus cervus</i>	Desegokia-kaltegarria	1-4, 6-7, 9-10, 17-21, 39-44
<i>Cerambix cerdo</i>	Desegokia-kaltegarria	1-4, 6-7, 9-10, 17-21, 39-44
<i>Rosalia alpina</i>	Desegokia-kaltegarria	1-4, 6-7, 9-10, 17-21, 39-44
<i>Elona quimperiana</i>	Desegokia-kaltegarria	1-4, 6-7, 9-10, 17-21, 39-44
Uhandre marmolairea <i>Triturus marmoratus</i>	Ezezaguna	17, 39-44
Txantxiku arrunta <i>Alytes obstetricans</i>	Ezezaguna	17-20, 14, 24, 26-29, 32, 33, 35-38, 39-44
Zirauna <i>Anguis fragilis</i>	Ezezaguna	17-20, 14, 24, 26-29, 32, 33, 35-38, 39-44
Eskulapio sugea <i>Zamenis longissimus</i>	Ezezaguna	17-20, 14, 24, 26-29, 32, 33, 35-38, 39-44
Sai zuria <i>Neophron percnopterus</i>	Ona-aldekoa	39-44, 47-53
Miru beltza <i>Milvus migrans</i>	Ezezaguna	17-20, 35, 47-53
Miru gorria <i>Milvus milvus</i>	Ezezaguna	17-20, 35, 47-53
Sugezale europarra <i>Circaetus gallicus</i>	Ezezaguna	17, 39-44, 47-52
Mirotz zuria <i>Circus cyaneus</i>	Ezezaguna	24, 39-44, 47-52
Gabiraia <i>Accipiter nisus</i>	Ezezaguna	17-20, 24, 26-29, 32, 33, 47-52
Zuhaitz belatza <i>Falco subbuteo</i>	Ezezaguna	17-20, 24, 26-29, 32, 33, 47-52
Zapa <i>Caprimulgus europaeus</i>	Ezezaguna	17-20, 24, 26-29, 32, 33
Lepitzulia <i>Jynx torquilla</i>	Ezezaguna	17-20, 24, 26-29, 32, 33
Etxe-txinboa <i>Sylvia undata</i>	Ezezaguna	24, 26-29, 32, 33
Antzandobi arrunta <i>Lanius collurio</i>	Ezezaguna	24-29, 32, 33
Kiropteroak	Ezezaguna	17-20, 24, 36, 39-44
Europako basakatua <i>Felis sylvestris</i>	Ezezaguna	17-20, 26, 35-38

Babes bereziko espezie eta habitaten galera edo kaltea ekiditeko:

- 1.- Horien kontserbazio-egoeran eragin nabarmena duen beste edozein jarduerarekin, ebaluazio egokiaren prozedura bete beharko da, natura-ondarearen eta biodibertsitatearen 42/2007 Legean eta aplikatu beharreko gainerako legerian ezarritakoari jarraituta.
- 2.- Kontserbazio-egoeran eragin dezakeen edozein ekintzak ingurumen-ebaluazioa jasoko du. Kontserbazio-egoera onean mantentzeko edo egoera horretara iristeko, aurretik gaur egungo egoera definitu beharko da, eta hau ezinezkoa den kasuetan, estimazio kualitatibo fidagarrien bitartez egin beharko da.
- 3.- Ondoren, aldizka ebaluatu beharko da kontserbazio-egoera, prozedura estandarizatuen bitartez. Horrela, EAeko Natura 2000 Sareko beste tokietako emaitzekin konparatu ahal izango da, orokorrean sare osoaren kontserbazio egoera estimatu ahal izateko. Prozedura horiek tresna honen jarraipen-programan barneratuko dira, eta espezie edo habitat bakoitzarentzat, talde taxonomikoentzat edo beste taxoi elkarketentzat egin ahal izango dira, beti ere espezie bakoitzaren bakarkako ebaluaketa ahalbidetzen bada.
- 4.- «Babes erregimen bereziko habitat edo espezie» bat egoera txarrean dagoela zehazten denean, oinarrizko elementu edo kudeaketaren helburu izatera pasako da. Honek beharrezkoak diren kontserbazio neurriak berehala hartzea suposatuko du. Hala ere, «Babes erregimen bereziko habitat edo espezie» kontsideratzen jarraitu ahal izango da, beste oinarrizko elementuren batentzat dokumentuan aurreikusten diren neurriak bere kontserbazio egoera ona lortzeko nahikoak direla ikusten bada. Kasu horretan, neurri horiek aurreko taulan zehazten dira.

KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK

Atal honetan kudeaketan lagunduko duten elementuak sartzen dira, hainbat oinarrizko elementuei eragiten dieten faktore edo zonalde bezala ulertuta. Faktore hauentzat, oinarrizko elementu guztientzat edo gehienentzat neurri komunak ezarriko dira, dokumentuan zehar errepika ez daitezten.

1.- BIODIBERTSITATEAREN GAINEKO JAKINTZAK ETA INFORMAZIOA

Baldintzak

Habitat eta espezieei buruzko nahikoa informazio ez izateak kontserbaziorako politika aktiboen plangintza eta inpaktuen ebaluazio egokia baldintzatzen du eta ondorioz, prebentzioa zailtzen du.

Kasu askotan ezinezkoa da datu kuantitatibo bidez espezieen kontserbazio egoera zehaztea. Leku hau Natura 2000 Sarean barneratzea eragin duten espezie eta habitat natural bakoitzaren egungo eta aldeko egoeraren definizioa, biodibertsitateari buruz dugun ezagutza hobetzeko aukera eta kudeaketa antolatze behar bat izateaz gain, legeko eginkizun bat ere bada eta EAE, estatu eta Europa mailan egoeraren ebaluazioak egin ahal izateko informazio estandarizatua hedatzeko prozedura arinak erabiltzera behartzen du.

Hala ere, fauna eta floraren ezagutza oraindik urria da, eta ezberdintasun handiak daude talde taxonomikoen artean; beraz, kasu askotan ezinezkoa da espeziearen kontserbazio egoera kuantitatiboki zehaztea. Informazioa badagoen kasuetan ere, honen kalitatea ez da ona, eta zaharkitua dago, eta populazioen joera eta dinamikak ebaluatu ahal izateko ez dago serie historikorik. Horregatik, elementu askorentzat ezartzen den lehenengo neurria, kontserbazio egoera zehatz definitzea izango da.

EAEko landaretzaren mapa (EUNIS, 1:10.000), egokia da habitat natural gehientzat baina, gainazaleko adierazpen urria dutenentzat edo Arnoko kontserbazio helburu diren espezie askoren ziklo biologikoarentzat mikrohabitatakat osatzen dituzten elementu natural edo kulturalentzat ez da egokia. Gainera, ez dago mapa hori eguneratzeko modurik, eta beraz, urte gutxitan kudeaketa tresna baliogabe bilakatu da, lurraldeak duen eraldaketa natural eta antropikoen dinamikagatik. Bestalde, 1:10.000 eskalako lanean antzematen ez diren hainbat habitat txiki daude. Beste habitat batzuk denborarekin modu naturalean edo gizakiaren erabileragatik eraldatuak izan daitezke, eta aldaketak ez dira eguneratu mapan. Horregatik, tresna zaharkitua suertatuko da mapa hori.

EAEko eskumen erregimena kontuan izanda, non hainbat administrazio eremu berean eskumenak egikaritzen dituzten, prozedura arinak eta efikazak ezarri behar dira, habitatetan, beren banaketetan eta azaleretan egon daitezkeen aldaketen informazioa modu egokian transmititzeko.

Egun, Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen Euskadiko Biodibertsitatearen Informazio Sistemak Autonomia erkidego mailan egindako Arnoko buruzko proiektu, inbentario eta abarren bidez jasotako dibertsitate ekologikoari buruzko datu ugari dituen arren, badago oso barreiatutako informazioa eta kudeatzaileentzat irismen zailekoa den informazioa.

Bestalde, merkatuan balioa duten Arnoko zenbait produkturen finantza balioez gain, ez dago bertako biodibertsitate osoaren balorazio ekonomikorik. Bertako ekosistemek sortzen dituzten ingurumen zerbitzuak eta biodibertsitate eratorritako onurak ez dira kuantifikatuak izan. Biodibertsitatearen eragina izan dezaketen ekintzei buruzko erabakiak hartzerako orduan biodibertsitatea kontuan har dadin eta gizarteak, biodibertsitatearen galerak gure ongizate mailan eta gure ekoizpen sistemaren babesean duen eragin zuzena uler dezan, balorazio hauek ezinbestekoak dira.

Faunaren hilkortasun ez naturalen eta honen arrazoiei buruzko erregistro estatistikorik ez dago, hala nola, harrapaketak, elektrizitate kableak, pozoia eta isilpeko ehiza. Honek, prebentzio neurri egokien ezarpena eta korridore ekologiko eraginkorren diseinua zailtzen ditu.

EAEan ez dago kable elektrikoek hegaztiengan sor ditzaketen kalteak gutxitzeko neurriak biltzen dituen arau elektroteknikorik.

Bigarren eta hirugarren kategoriako elektrizitate posteei, bertan sostengatu ohi diren hegaztiengan (gehienbat falkoniformeak, miru beltza kasu) elektrokuzio arriskua sortzen dute. Arrisku honen jatorria ondorengoa da: isolatu gabeko eroaleak daude hegazti hauek pausatzen diren tokietan. KBEan mota honetako hainbat kable daude, zonaldea iparraldetik Olatzeraino zeharkatzen dutenak, non hainbat baserrietara argindar sarea eramateko transformagailua dagoen.

Azkenik, ez dago KBEan zaindu behar diren basoko fauna populazioengan eta interes komunitarioko habitatengan ehizak izan dezakeen eraginari buruzko kalitatezko informaziorik. Hortaz, zaila da ehizaren gaineko neurri, arau eta jarraibideak ezartzea.

Helburu eta neurriak

4. helburua	Arnoko biodibertsitatearen kontserbazio-egoera eta biodibertsitatea galtzea edo kaltetzea eragin dezaketen arrazoiak behar adinako zehaztasun-mailaz ezagutzea, biodibertsitateari epe luzera eustea bermatzeko neurriak hobeto doitze aldera.
4.1 emaitza	Arnoko dibertsitate biologikoa eta osotasun ekologikorako esanguratsuak diren leku edo elementu natural edo kulturalen eta kontserbatzeko interesgarriak diren habitat guztien kartografia eguneratua eskuratzen da.
Neurriak	<p>38) Adituek egindako behaketa berrietatik eratorritako informazioaren bidez EUNIS Habitaten mapa eguneratzeko protokoloa definitu. Aldaketa guztiak KBEaren kudeaketa organoak berrikusi beharko ditu aurretik. Honakoak izan beharko dira kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Gizakiaren esku-hartzea edo eboluzio naturalaren ondorioz gertatutako aldaketak. ○ Lan-eskalaren ondorioz inbentarioan barneratu gabe gertatutako kokapen murriztuak dituzten habitatei buruzko informazioaren hobekuntzak.

	<p>39) «Basa fauna eta florarentzat balio duten elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario ireki georeferentziatua» eratu. Inbentarioak, barneratutako elementuak karakterizatu beharko ditu edo gutxienez, barneratuak izatearen arrazoiak adierazi beharko ditu.</p>
Arauak	<p>40) Elementu bat «Basa fauna eta florarentzat balio duten elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario ireki georeferentziatua» sartzeak, elementu hori dagoen eremua «babes zorrotzeko eremu» izendatzea ekarriko du; eragina izan dezaketen jardueren ebaluazio egokia egin beharko da, eta, beharrezkoa izanez gero, neurri aringarri edo orrekatzaila egokiak ezarri beharko dira.</p> <p>41) Modu egokian justifikatua egongo balitz eta beste aukerarik egon ezean, elementuen galera edo narriadura sortuko lukeen ekintzaren bat baimenduko balitz, kaltea konpontzeko, elementutik ahalik eta gertuen honen baldintza eta funtzio ekologiko berdinak beteko dituzten elementuak ezarri beharko dira kaltea egin aurretik. Modu honetan KBEko aktibo naturalaren kopuru osoa mantenduz.</p>
Jarraibideak	<p>42) «Inbentarioan» barneratutako elementuak mantentzea, KBEko esparruko «Gutxieneko kudeaketa baldintza» bezala ezarriko da. Behar izanez gero, helburu hau betetzeko konpentsazioak edo jabeekin babes eta kontserbazio akordioak sinatuko dira.</p>
4.2 emaitza	<p>Habitat eta babes bereziko erregimeneko basa espezie guztien kontserbazio-egoera ezagutzen da.</p>
Neurriak	<p>43) Babes bereziko erregimenean dauden basa espezie eta habitat guztientzat beren kontserbazio egoerari buruzko fitxa bat egingo da. Horretarako, oinarriko elementuentzat erabilitako 3. eranskinen formatua egokituko da. Modu honetan, informazioa modu arinean erabili ahaliko da eta Habitat Zuzentarauko 17 artikuluan adierazten den informazio estandarizatuaren transmisioaren betebeharrak beteko dira.</p>
4.3 emaitza	<p>Arnoko ondare eta zerbitzuen eta biodibertsitatearen balio ekonomikoa estimatzen da.</p>
Neurriak	<p>44) Arnotik eratorritako ingurumen zerbitzu eta biodibertsitatearen balio ekonomiko osoa kontuan izanik, Arnoren existentziatik eratorritako onurak kuantifikatuko dituen ikerketa egitea. Ikerketa hau zehazki lekuarentzat egin daiteke edo emaitzen transferentzia ahalbidetuko luketen metodologiak erabiliz eskala handiagoan egindako ikerketen barne.</p> <p>45) Aurreko ikerketaren emaitzak bertako komunitateetan zabaltzeko eta interesa duten guztien esku jarri, horrela, erabakiak hartzeko orduan eta eragina izan dezaketen ebaluazio estrategiko edo inpaktu ebaluazioetan kontuan har daitezten.</p>

4.4 emaitza	Argindar sareak dakartzan arriskuak eta beste arrazoiengatik sortutako basa faunaren heriotza ez naturalak gutxitzen dira KBEan, eta hauengan traba sor dezaketen aktibitateak aztertu eta erregulatzen dira.
Neurriak	<p>46) KBEko argindar kableak aztertu eta hegaztiak pausatzerakoan jasaten duten arriskua baloratu eta pausagune arriskutsuak konpontzeko proposamena egin.</p> <p>47) Hegaztientzako pausatzeko toki eta elementu arriskutsuak zuzendu.</p> <p>48) Plana indarrean jarri eta ondorengo bi urteetan Ehiza Antolamendurako Plan Teknikoa egin, ondorengoa kontuan hartuz:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Espezie zinegetikoen kontserbazio-egoera, batik bat oilagorrena. - Erreserba-eremuak. - Kontserbazio-helburuekiko bateragarritasuna eta babes bereziko erregimenean dauden espezieei eragin zuzenak, arriskuak edo eragozpenak ez sortzeko neurriak. - Olgetarako erabilerekiko bateragarritasuna eta KBEra ehizara joaten ez direnei arriskuak eta eragozpenak ez sortzeko neurriak. Horretarako, ehiza eremuak mugatuko dira, ehiza egutegia egokituko da, eta segurtasun eremuak zainduko dira. - Kartutxoak kentzea kontrolatzea, berunarekin intoxikatzeiko arriskuak ebaluatzea eta arrisku horien segimendua egiteko programa bat martxan jartzea. - Zaintza eta kontrol programa bat egitea. <p>49) Arrano Etxea Basa Faunaren Errekuperazio Zentroan sartzen diren Arnoko KBEko edo inguruko basa espezieen erregistro informatikoa egingo da. Honako datuak sartuko dira: zauria edo lesioa, arrazoa eta jasotako puntuaren koordenada geografikoak. Pozoitze kasuetan, ekintza penal eta administratiboak hasteko emaitzen fidagarritasuna ziurtatuko duten analisi toxikologikoak egingo dira.</p> <p>50) Lortutako informazioarekin puntu beltzen mapa egingo da, eta bertan honako informazioa ere jasoko da: elektrizitate hariekin edo beste azpiegiturekin talkak, elektrokuzioen ondoriozko heriotzak, tiroak, pozoitzeak, harrapaketak edo heriotza ez naturala eragin dezakeen beste edozein arrazoi. Hiru urtean behin, mapa hori eguneratu egingo da, eta dekretu honetan eta ondorengoe-tan sartzeko neurri zuzentzaileak proposatuko dira.</p> <p>51) Abeltzain, baso-jabe, mendizale-elkarte, ehiztari eta inguru horietan maiz ibiltzen den edozein kolektibori maparen sorkuntzaren berri eman, eta beraiek ikusitakoak administrazio eskuduneko langileei helaraztera animatu.</p> <p>52) Naturaren Babeserako Komisio Nazionalak onartutako «Pozoidura Kasuetarako Ekintzen Protokoloa» ezarri, eta perituen probak egiteko aholkuak jasotzen dituen txosten tekniko bat prestatu.</p> <p>53) KBEko ehiza-aprobetxamenduen titularrei eta abeltzainei kontzientziazio eta asmo kentze neurri bezala landa-kontrolak egingo direla adierazi eta amuzkien erabileraren detekzioan parte hartzera animatu.</p>

2013ko apirilaren 22a, astelehena

	<p>54) Basa-faunaren heriotza ez naturalen urteroko txostena egin, hartutako neurri prebentiboak eta horien emaitzak adieraziz, eta txosten hori interesdun guztiengana iristea ziurtatu.</p> <p>55) Faunarengan eta habitat naturalengan motordun ibilgailuek sor ditzaketen eraginak aztertu eta beharrezkoa dela ikusiko balitz, motordun ibilgailuek erabil ditzaketen pistak seinalizatu, bere erabilera erregulatzeko.</p>
Araua	EAEko araudi elektroteknikorik ez dagoen bitartean, KBEan jartzen diren argindar kable berriek estatuko araudiak jarraitu behar dituzte (abuztuak 29ko 1432/2008 Errege Dekretua, hegaztiak argindar poste eta kableekin egiten dituzten talkak eta elektrokuizioak saihesteko neurriak hartzen dituen dekretua). KBEko lineak eraldatzea edo oinarriak aldatzea, instalazio berrizat hartuko dira.
Jarraibideak	<p>56) Behin eta berriro pozoitutako amuzkien erabilera antzematen bada «Ingurune Naturelean amuzki pozonduen erabileraren aurkako Estrategia Nazionalen» jasotako neurriak hartuko dira.</p> <p>57) Argindar enpresarekin argindar sarean 47 eta 48. neurrietan aipatzen dena aplikatzeko akordioak sustatuko dira.</p>

2.- KOMUNIKAZIOA, HEZKUNTZA, PARTEHARTZEA ETA HIRITARREN KONTZIENTZIAZIOA

Baldintzak	
<p>Gobernantza egokiaren printzipioetan oinarrituz, hiritarrak informatu, entzun eta parte hartzeko eta administrazio publikoak bere kudeaketari buruzko azalpenak emateko organo eta prozedurak ezartzea beharrezkoa da.</p> <p>Dokumentu hau idazteko prozesuan kontsultatu ziren Arnoko lursailen jabeen eta erabiltzaileen zati handi batek ez zekien Euskadiko Natura 2000 Sarean sartuta zegoenik eta sare honen esanahia edo bertan sartzeko arrazoiak ez zituen ezagutzen.</p> <p>Jabeen eta erabiltzaileen gehiengoak, gainera, ez zekien kontserbazio-helburuak lortzen lagun dezaketen ingurumen-arloko laguntzak daudela orain.</p>	
Helburu eta neurriak	
5. helburua	Arnoko KBEan eragina duten erabakiak hartzeko prozesuetan gizartearen parte hartzea bultzatzea eta KBEaren kontserbazioan hiritarren inplikazioa bultzatzea.
5.1 emaitza	Gizarteari, Arnoko biodibertsitatearen kontserbazio egoera, aurkako egoerak sortzen dituzten arrazoiak, honen inguruko politika publikoak eta hauen emaitzei buruzko informazioa erregulariki helarazten zaio.
Neurriak	<p>58) Ingurumen Saileko web orrian, Arnoko KBEaren inguruan herritarrentzat dagoen informazio ulergarria eguneratzeko prozesuak hobetu.</p> <p>59) Landaretza eta fauna kontserbatzeko neurriei buruzko komunikazio programa garatu eta neurri hauen eragina jasan dezaketen edo aktiboki inplikatu daitezkeen gizarteko sektoreei zuzendu.</p>

	<p>60) Nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien eta baso lanen gaineko neurriak lur jabeen artean eta erabiltzaileen artean zabaltzeko ekintzak planifikatu eta aurrera eraman, KBEko habitat naturalen eta basa espezieen kontserbazio egoera hobetzeko, eta ekintza horiek bere balio naturalari buruz sentsibilizatzeko erabili.</p> <p>61) Parte-hartze prozesuan ikusitakoaren arabera, kontserbazio-neurriak aplikatzea zaildu edo faboratu dezaketen eragile sozial eta ekonomikoak aukeratuko dira, beren ezaguerak eta gaur egun dituzten jarrerak aztertuko dira, eta plana aurrera eramateko planteatzen dituzten mugak identifikatuko dira.</p> <p>62) Oinarrizko eragile bakoitzarentzat neurri zehatzak definitu kontzeptuak modu egokian eta ulergarrian garatzeko helburuarekin; jarrera aldaketak bultzatu eta Arnoko biodibertsitatearentzat kaltegarriak diren jarreraren aldaketa bultzatu. Konkretuki, ondorengo proposatu beharko da: a) KBEaren onurak komunikatu. b) komunitateen eta tokiko entitateen ezaguerak eta onarpen soziala hobetu.</p> <p>63) Hiritarrek KBEari eta bere helburuei buruz duten ezagutza maila, jarrera eta portaerak ikusteko aldizkako ebaluaketak egin, komunikazio, hezkuntza eta kontzientziatorako ekintzak birbideratu ahal izateko.</p>
Jarraibideak	<p>64) Dokumentu honen helburuekin zerikusia duten eta baliabide publikoekin finantzatuta dauden Arnoko lan zientifiko eta tekniko guztiak publiko egingo dira, eta hiritarrek erraz ulertzeko laburpen-dokumentua eramango dute.</p> <p>65) Laburpen hauek autonomia-erkidegoko ingurumen-organismoaren egoitza elektronikoaren bitartez zabaltzeko beharko dira, eta eskatzen dituen interesdun orori helaraziko zaizkio.</p>

3.- GOBERNANTZA

Baldintzak
<p>Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila Natura 2000 Sarearen arduraduna da. Baina, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeek eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeek Artekoko Hurremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 legearen arabera, kudeaketa Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru organo eskudunari dagokio. Baina, ez dago Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate Zuzendaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarrekin lana egiten duten lan talde egonkorrik.</p> <p>Babestutako eremua antolatzeak tresnak koherenteak izan behar dute, maila guztietan. Bestela, erakundeek zereginak gainjartzea gerta daiteke eta, ondorioz, dauden giza eta finantza baliabide eskasak modu eraginkorrean ez erabiltzea eta espazioaren gestioa kaltetu dezaketen kontraesanak sortzea.</p> <p>Europar Batasuneko komisioak eta kontseiluak ebatzi dutenez, Natura 2000 Sarearen kontserbazioa planeamendu sektorialeko eta garapen sozio-ekonomikoko tresna guztietan helburu bezala barneratu behar da. Natura-ondarearen eta Biodibertsitatearen 42/2007 legeak adierazten duenez, botere publiko guztiek, dagokien esparruan, ondasun naturalaren kontserbazioan eragingo duten ekintzak eta ondorioz Natura 2000 sarea, bultzatuko dituzte. Elkarlan egokia sortzeko eta sektore anitzeko aliantzak sustatzeko zailtasun instituzionalen ondorioz, gerta daiteke planean proposatutako helburuak ezin lortzea.</p>

Plana ezingo da aplikatu egitura egoki bat sortzen ez bada. Egitura horrek gai izan behar du inplikaturako administrazio, erakunde eta agente sozialak dinamizatzeko, jardueren eta emaitzen segimendua egiteko, jarduera eta emaitza horien berri emateko, jarduera berriak proposatzeko eta, inplikaturako alderdi guztiei eta dagozkien adituei kontsulta egin ondoren, aurreikusitako helburuak lortzeko egin behar diren aldaketak aurrera eramateko.	
Helburu eta neurriak	
6. helburua	Organo eskudun guztien koordinazio instituzionala hobetu eta Ingurumen araudia eta zatikako araudia egokitu, dokumentu honekin bat etor dadin.
6.1 emaitza	Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Biodibertsitate Sailaren ekintzak koordinatuko dituen batzorde teknikoa eratzen da.
Neurriak	66) Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako Zuzendaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lantalde egonkorra osatu Arnon, dokumentu honetan ezartzen diren neurriak elkarlanean aplikatzeko. Segimendu-organo hori, KBEa izendatu ondoren, gehenez urtebeteko epean osatuko da.
6.2 emaitza	Tresnaren aplikazioa errazteko ingurumen-araudi eta araudi sektorial guztia egokitzen da.
Jarraibideak	67) Arno KBEaren ezarpen-eremuan eragina izan dezakeen edozein plan sektorialetan sartuko dira, derrigorrezkoak diren neurri prebentibo eta minimizatzaileez gain, Arnoko biodibertsitatean eragin positibo eta ebaluagarriak izango dituzten neurriak, tresna honen helburuak lortzen lagunduko dutenak.

ZONIFIKAZIOA

Neurriak toki zehatzetan ezarri behar badira, zonifikazioa izango da kudeaketarako tresna, proposaturako neurriak espazioko zonaldeetan kokatzea ahalbidetzeko.

Egungo egoeraren arabera eta egitea proposatzen den kudeaketaren arabera, eremu ezberdinak definitzen dira. Kontserbazio egoera zein honi loturiko kudeaketa egokitu arazo naturalengatik zein gizakiak eragindako arazoengatik denboran zehar aldatzen joan daiteke. Adibidez, posible da berriztapen ekologikoko eremu bat babes zorrotzeko edo garapen naturaleko eremu izendatzea, beharrezko berriztapen neurriak ezarri ostean edo ebaluatzeko eta berrikusteko unea iristen denean. Beraz, zonifikazioa aldatu egin daiteke denborarekin.

1.- GARAPEN NATURALEKO EREMUAK (GNE)

Balio ekologiko altuko eremuak dira eta bertan lekuaren osotasun ekologikorako oinarrikoak diren prozesu funtzionalak ematen dira. Beren barne habitat naturalak hartzen dituzte edo oso bereziak diren espezieen edo oso mehatxaturako espezieen habitatak dira.

Eremu hauetan salbuespen gisa, habitaten garapena azkartzeko, bere espezieen kontserbazio egoera hobetzeko edo bere osotasun ekologikoa arriskuan jar dezaketen mehatxuak geldiarazteko intentsitate baxuko ekintzak planteatu ahalko dira. Zientzia eta

heziketa jarduerak eta erabilera publikoko jarduerak ere planteatu daitezke, baldin eta osotasun ekologikoa kaltetzen ez badute. Ekintza horiek organo eskudunak baimendu beharko ditu, kontserbazio-neurriak aplikatzean.

Eremu horietan sartu egiten dira garrantzi komunitarioko habitat arrokatsuak, artadiak eta *Quercus robur* osatutako baso hostogalkorrak, abere-ustiapeneko eta resalbeo esperimentaleko lur-eremuak izan ezik. Arte-landaketak, hostozabalen baso natural gazteak eta hostozabal hostoiraunkorren landaketa gazteak ere barne hartzen dira, beti ere, mantentze-lanik behar ez badute.

	EB kodea	EUNIS kodea
Mendebaldeko luizi mediterranean termofiloak	8130	H2.64
Malda harkaiztsu kaltzikolak	8210	H3.2
<i>Quercus ilex</i> eta <i>Quercus rotundifolia</i> basoak	9340	G2.121
<i>Quercus ilex</i> landaketak		G2.83(X)
Hostozabalen baso natural gazteak		G5.61
Hostozabal hostoiraunkorren landaketa gazteak		G5.73
<i>Quercus robur</i> nagusi duen baso azidofiloa		G1.86

Intentsitate handiko ekintzarik behar ez duten berreskuratutako eremuak gutxika talde honetan barneratzen joango dira.

2.- BABES ZORROTZEKO EREMUAK (BZE)

Zona hauek, oro har, oso txikiak izaten dira. Balio handi edo berezia duten elementu natural eta kulturalak daukate; bereziak izan daitezke arraroak direlako, adierazgarriak edo estetika aldetik garrantzitsuak direlako, garrantzi kulturala dutelako edo flora eta fauna basatia zaintzeko eta haien ziklo biologikoa garatzeko egokiak direlako (batik bat babesteko, umeak hazteko, elikatzeke eta joan-etorrietarako lekuak). Zorrotz babestu eta inguruko jarduerak egoki kontrolatu behar dira.

Maila horretan ditugu: batetik, turismoak ustiatu gabeko kobazuloa –kasu horretan, Arno mendilerroko ezkiak–; eta, bestetik, jarraian ageri diren «basa fauna eta florarentzat balio duten elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario ireki georreferentziatuan» sartzeko proposatutakoak eta etorkizunean inbentario horretan sar litezkeen elementuak:

2013ko apirilaren 22a, astelehena

	UTM koordenatuak
Gorostiak	(X 549456, Y 4792444) (X 549455, Y 4792376) (X 549508, Y 4791691) (X 549430, Y 4791641), handia (X 549667, Y 4792009), tamaina ertaina (X 549445, Y 4792940) (X 549505, Y 4793304) (X 549698, Y 4793463) (X 550290, Y 4792387) (X 547295, Y 4793386) (X 547869, Y 4793816) (X 549552, Y 4791784) (X 549644, Y 4792753) (X 549440, Y 4792289), zepak (X 549678, Y 4791058), handia (X 549556, Y 4792080), handia (X 549348, Y 4791723), handia, bi (X 549250, Y 4791629), txikia (X 549489, Y 4793227), txikia (X 547709, Y 4794074), txikia (X 549348, Y 4791723), txikia, asko (X 549387, Y 4792229), tamaina ertaina (X 549315, Y 4791675), tamaina ertaina (X 549312, Y 4790750), tamaina ertaina (X 549740, Y 4792393), tamaina ertaina, baso soilketan errespetatuta (X 547807, Y 4793629), behe basoa osatuz (X 549509, Y 4791961), tamaina ertaina (X 549676, Y 4791720), baten bat oso handia (X 549505, Y 4792027), baten bat oso handia (X 547928, Y 4793712), batzuk tamaina ertainekoak (X 549133, Y 4793331), taldeak, tamaina ertainekoak (X 549748, Y 4790875), hainbat, handiak (X 549621, Y 4793492), gorosti taldeak (X 549698, Y 4793463), gorosti taldeak (X 549213, Y 4793336), gorosti taldeak (X 549639, Y 4791165), tamaina ertaineko gorosti taldeak
Gaztainondoak	(X 548136, Y 4794158), handia, hilda (X 547869, Y 4793816), (X 547928, Y 4793712), txikia (X 549509, Y 4791961), txikia (X 547807, Y 4793629), behe basoa osatuz (X 549942, Y 4792914), zaharrak baina txikiak, zepak (X 547807, Y 4793629), hainbat, batzuk tamaina ertainekoak (X 548912, Y 4790690), bi (X 549445, Y 4792940), handi gutxi, gehienak zepa (X 547869, Y 4793816), hainbat, handiak
Intereseko haritzak	(X 549970, Y 4792768), handia (X 549489, Y 4793227), handia (X 550287, Y 4792500), handia (X 549488, Y 4792603), handia (X 549428, Y 4792581), handia (X 549748, Y 4790875), handia (X 549791, Y 4790886), handia (X 547709, Y 4794074), handia (X 547951, Y 4792254), handia (X 549312, Y 4790750), zaharkituta (X 548364, Y 4790169), hainbat, lepatuak (X 548912, Y 4790576), hainbat, zaharrak eta lepatuak

2013ko apirilaren 22a, astelehena

Artadi handiak	(X 549336, Y 4792087), unada (X 547709, Y 4794074) (X 549509, Y 4791961), unada (X 550040, Y 4791360) (X 549678, Y 4791058), unada (X 548912, Y 4790576), unada
Pago handiak	(X 549094, Y 4791001) (X 549509, Y 4791961) (X 549410, Y 4792529) (X 549456, Y 4792444) (X 547829, Y 4791922) (X 549040, Y 4791045), unada (X 549040, Y 4791360), unada
Pago lepatu handiak	(X 548426, Y 4790120) (X 548466, Y 4790359) (X 550009, Y 4791343) (X 550009, Y 4791343), erorita (X 549440, Y 4792289) (X 548878, Y 4791192) (X 548838, Y 4791192) (X 549621, Y 4793492), 3 eta 9ko taldeak (X 548943, Y 4793657) (X 549748, Y 4790875), unada
Haginak	(X 549464, Y 4791207), handia (X 549440, Y 4791120), handia (X 549464, Y 4791207), tamaina ertaina (X 549505, Y 4792027), tamaina ertaina (X 549556, Y 4792080), tamaina ertaina
Lizarrak	(X 550440, Y 4792518) (X 549552, Y 4791784)
Heskaiak	De (X 548247, Y 4793255) a (X 548184, Y 4793134) De (X 548498, Y 4793423) a (X 547983, Y 4793405) De (X 547847, Y 4793263) a (X 547895, Y 4793267) De (X 547786, Y 4792988) a (X 547885, Y 4792960) De (X 548054, Y 4792628) a (X 547983, Y 4792163), osatu ga- beko heskaia, errestauratzeko De (X 547703, Y 4793827) a (X 547812, Y 4793683) De (X 547762, Y 4793782) a (X 547875, Y 4793775)
Baltsa	Ormolako putzua (X 549469, Y 4790995)
Hildako egurra lurrian	(X 549094, Y 4791001) (X 549456, Y 4792444)
Hildako egurra zutik	(X 549456, Y 4792444)

«Basa fauna eta florarentzat balio duten elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario ireki geoerreferentziatuan» barneratzen doazen elementu zein eremuak progresiboki maila horretan sartzeko joango dira.

3.- BERREZARTZE EKOLOGIKOKO EREMUAK (BEE)

Beren balio ekologikoek, habitat naturalek eta espezieek aldaketa edo narriadura nabarmena agertzen duten degradatutako eremuak dira. Eta beren funtzionaltasuna berreskuratu, baloreen biziraupena bermatu eta kontserbazio egoera hobetzeko ekintza ezberdinak proposatzen dira.

2013ko apirilaren 22a, astelehena

Berrezartze ekologikoko eremu gisa ondorengoak izendatzen dira, oraingoz, eta 1,2 eta 3. neurrien arabera, baso landaketa kontsideratzen diren azalerak eta aprobetxamendu intentsibo kontsideratzen direnak:

	UE Kodea	EUNIS Kodea
Erriberako haltzadi euro-iberiarra	91E0*	G1.21(Z)
<i>Robinia pseudoacacia</i> landaketak		G1.C3
Resalbeorako artadi lursailak	9340	G2.121
<i>Eucaliptus</i> sp. landaketak		G2.81
<i>Quercus ilex</i> landaketa gazteak		G2.83(X)
<i>Pinus pinaster</i> landaketak		G3.F(M)
<i>Pinus radiata</i> landaketak		G3.F(P)
<i>Larix</i> sp. landaketak		G3.F(S)
<i>Chamaecyparis lawsoniana</i> landaketak		G3.F(T)
<i>Pseudotsuga menziesii</i> landaketak		G3.F(U)
Konifera mistoen landaketak		G3.F(Z)
Koniferen landaketa gazteak		G5.74
Hostozabal moztu berriak		G5.81
Konifera moztu berriak		G5.82
Harrobiak eta zero zabalerako erauzketa tokiak		J3.2
Utzitako erauzketa gunekak		J3.3

Berrezartze ekologikoko zonalde kontsideratzen dira, resalbeorako utzitako lursailak; gainera, partikularren entresakak egiteko baimena eskatu dituzten lursailak ere resalbeorako lursail esperimental kontsideratuko dira, eta beraz, Berrezartze Ekologikoko Zonalde izendatuko dira.

4.- BALIABIDE NATURALEN USTIAPEN ESTENTSIBOKO EREMUAK (UEE)

Lekua izendatzea eragin eta osotasun ekologikoa eta ingurumen zerbitzuak ziurtatu dituzten landaretza eta fauna espezieen kontserbazio egoera egokia bermatzeko ezinbestekoak diren aldaketa gutxi jasandako sistema natural edo erdi-naturalak barne hartzen dituzten eremuak dira. Landaretza eta fauna espezieek produktu naturalen fluxu jarraitua eskaintzen dute eta tokiko komunitateen garapen sozio-ekonomikoan parte hartzetan dute.

Baliabide naturalen ustiapen estentsiboko eremuen barne Olatzeko landazabaleko eremu guztia aurkitzen da, hau da, sega belardi, larre, heskai eta sakabanatutako zuhaitzek eratzen duten mosaikoa. Hemendik at geratzen dira; baliabideen ustiapen estentsiboko eremuak, erabilera publiko, hiritar edo azpiegituretako eremuak eta ganaduarentzat erregimen estentsibo bezala erabil daitezkeen artadi eta hariztiaren ordezkapen etapako sastrakadiak. Haez gain, jarraian ageri diren habitatak eta hauen arteko mosaikoak ere:

	EB kodea	EUNIS kodea
Larre lehor erdi-naturalak eta substratu kalkareo gaineko sastrakadi faziesak (<i>Festuco-Brometalia</i>) (garrantzizko orkideadun eta gabeko inguruak)	6210*, 6210	E1.26
Bazkatutako larreak eta manipulatu gabeko larreak		E2.11
Altuera baxuko sega belardi pobreak (<i>Alopecurus pratensis</i> , <i>Sanguisorba officinalis</i>)	6510	E2.21
Muinoetako iradi atlantiko eta azpiatlantikoak		E5.31(X)
Sasitza kaltzikola (<i>Rubus ulmifolius</i>)		F3.11(Y)
<i>Ulex europaeus</i> -en otadi atlantikoa		F3.15(Y)
Urriztia		F3.17
Europako txilardi lehorrak	4030	F4,23(X)
Elorri-triskadun txilardi oromediterraneo endemikoak	4090	F7.44(Y)
Bertako espezieen heskaia		FA.3

5.- BALIABIDEEN USTIAPEN INTENTSIBOKO EREMUAK (UIE)

Habitaten kontserbazioarekin zuzenean loturarik ez duten ustiapen ekintzak barne hartzetan dituzten eremuak dira. Ustiapen prozesuen ingurumen integrazio egokiari esker, ekintza hauek eremuaren osotasun ekologikoa, habitat naturalen presentzia eta kontserbaziorako balioa duten espezieak ez dituzte arriskuan jartzen. Horrela izan ezean, berriztatze ekologikoko eremu edo lekuarekin bateragarriak diren beste eremu batzuetan bihurtu beharko dira.

KBEn dauden baratzeak, mintegiak eta fruta arbolak baliabideen ustiapen intentsiboko eremutat hartzen dira. Gainera, 2. neurrian adierazten denez, planaren lehenengo 2 urtetan baso landaketez osatutako 250 ha-ko azalera aukeratuko da, baliabideen ustiapen intentsiboko eremu izatera pasatzeko.

6.- ERABILERA PUBLIKOKO EREMUAK (EPE)

Jolas erabilera, interpretazioa eta ingurumen hezkuntzarekin lotutako ekintzak erregulatu eta barne hartzen dituzten erabilera publikora zuzenduriko ekipamendudun eremuak dira. Eta bisitari ugari jasotzen dituzte. Balizatutako bideak eta eremu hauetara iristeko sarbideak ere talde honetan sartzen dira.

Erabilera publikoko eremu izendatzen dira:

- San Isidro eliza inguruak eta inguruan kokaturiko jatetxeak.
- Kobalde inguruko eskalada egiteko paretak.
- Zazpizelaietako aterpea (UTM koordenadak X 549180, Y 4792235)
- Erabilera publikoko pistak
- Balizatutako xendak: Done Jakue bidea, GR 12, PR GI 43, PR 47 eta Arnoko gurutzea, Bandera eta Arno zeharkatzen dituen seinaleztatutako xenda (digitalizatu gabeak).

7.- HIRI EREMUAK ETA AZPIEGITURAK (HEA)

Eremuaren barruan aurki daitezkeen hiriguneak, jendea bizi den eraikin eta baserriak, azpiegitura zein eraikin artifizialak talde honetan sartzen dira.

Parkeak, lorategiak eta dentsitate baxuko eraikinak modu honetan katalogatzen dira.

	EUNIS kodea
Zapaldutako eremuak	H5.6
Dentsitate baxuko eraikinak	J2
Asfaltatutako eremuetara loturiko landaretza	J4.1
Errepide sareak	J4.2

2013ko apirilaren 22a, astelehena

JARRAIPEN ADIERAZLEAK

HELBURUA	EMAITZA	ADIERAZLEA	HASIERAKO BALIOA	ERREFERENTZIAZKO BALOREA
Gaur egun dauden artelatz basoen azalera (15ha.) mantendu eta guztira 61ha. izatera iristeko 46ha.-tan handitu.	Artelatz basoen kontserbazio egoera hobetu, bere dibertsitate espeziфика eta egitura dibertsitateareagotuz. Artelatzaren azalera 2 ha.-tan handitu.	Kontserbazio egoera	Zehaztu gabea	Ezaguna
Landazabal atlantikoaren (sega belardiak, bazkatutako larreak eta manipulatu gabekoak, heskaiak eta hormak) egungo azalera mantentzea eta bertako basoekin lotura biologikoko sarea hobetzea.	Gaur egungo landazabal atlantikoaren heterogeneotasuna eta azalera mantentzen da.	Artelatz basoen azaleraren (ha) areagotzea.	0	20
		Landazabalaren kontserbazio egoera	Zehaztu gabea	Ezaguna
		Antzandobiaren kontserbazio egoera	Zehaztu gabea	Ezaguna
		Euphydras aurinia-ren kontserbazio egoera	Zehaztu gabea	Ezaguna
		Sega belardien azalera orokorra (ha)	12	≥ 12
Epe luzera mantendu ahal izateko beharrezkoak diren neurriak diseinatu ahal izateko, Garate-Santa Barbarearen biodibertsitatearen kontserbazio egoera eta bere galera edo narriadura eragin dezaketenen kausak ezagutu.	Biodibertsitateko esanguratsuen diren leku edo interesgarriak diren habitat guttien kartografia eguneratua eskuratzen da. Babes bereziko erregimeneko basa espezie eta desagertzeko arriskuan dauden habitat guttien kontserbazio egoera ezagutzen da.	Ingurumen kontratuen barnean dauden sega belardien portzentajea	% 0	% 60
		Berrezarritako heskaiak (m)	0	700
		Berrezarritako heskaiak (m)	0	2.000
		EUNIS kartografia	2009an berrikusia	Eguneratua
		Inventario ireki georeferentziatua	Ez dago	Indarrean
	Habitat eta espezieen kontserbazio egoera	% 80 ezezaguna	Ezaguna (ERPE habitat eta espezieen % 100)	

2013ko apirilaren 22a, astelehena

	Arnoko ondare eta zerbitzuen eta biodibertsitatearen balio ekonomikoa estimatzen da. Fauna basatiaren hilkortasun ez naturalerako puntu beltzen mapa egitea, KBEan eta inguruan.	Biodibertsitatearen balio ekonomiko orokorra	Ezezaguna	Kalkulatua
Arnoko KBEei eragiten dieten erabakiak hartzeko herritarren parte hartzea eta herritarrengan kontserbaziorako inplikazioa sustatu.	Herritarrei, aldian-aldian, Izarraitzeko biodibertsitatearen kontserbazio egoerari buruzko informazioa ematea; baita kontrako egoerak eragiten dituzten arrazoiei, arrazoi horien inguruko politika publikoei eta politika horien emaitzei buruzko informazioa ere.	Puntu beltzen mapa Hiritarren ezagutza maila	Ez dago Baxua	Badago Altua
Organo kompetente guztien koordinazio instituzionala hobetu eta Ingurumen araudia eta zatikako araudia egokitu, dokumentu hone-tako helburu, neurri, jarraibide eta arauekin bat etor dadin.	Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Biodibertsitate Sailaren ekintzak koordinatuko dituen batzorde teknikoa eratzen da. Planaren aplikazioa errazteko ingurumen araudi eta zatikako araudi guztia egokitzen da.	Jarraipen organoa: saio kopurua/ barneratutako hiritarren ekarpenen %	% 0	1 urte/% 50
		Batzorde teknikoa	Ez dago	Indarrean
		Zatikako plan bateragarriak	Ebaluatu gabe	% 100